

INAUTERIAK



Inaxio Aierberi
omenaldia

Zuhaitz eguna
Goierri

Erga Omnes ek
lehen diska

Gabirian
rallysprinta



Mozorro denda
berria
ORDIZIAN

Majori Plaza, 12
© 943 888 232

**ZURE IRITZIA KONTUAN
HARTZEA NAHI DUZU?**

www.eaj-pnv.com

Zeuk erabaki.



Non zer

6 Eskutitzak

7 TXANDAKA: Joxepa Madariaga

9 KATE MOTZEAN: Tomas Lasa

10-11: Zuhaitz eguna Goierriin

12: Inaxio Aierbe

15-24 KRONIKAK

ORDIZIA 13:

Gaztetxeak 14 urte

ZEGAMA 14: 'Zeasma: biharko Zegama'

IDIAZABAL 14: Mediku kontsulta berritzen

ORMAIZTEGI 15: Zuhaitz eguna

ZERAIN 15: Bola txapelketa

SEGURA 16: Kultur astea Herri-Eskolan

LAZKAO 17: Lizarra-Garazi

ATAUN 18: Inaxitori agurra

OLABERRIA 19: Kultur astea

LEGORRETA 19: Ekoeskola

ZALDIBIA 20: Udalbatza

BEASAIN 21: Inauteriak

23 KULTURA: Erga Omnes

24-25 KIROLA: Rallya

26-27: AGENDA

28 DEBALDEKO IRAGARKIAK

29 ZAHARRAK BERRI: Pako Murgiondo.

30 ZAHARRAK BERRI - FOTO ZAHARRA: Lupulua biltzen



Gipuzkoako Gazte Asanblada aurkeztu da Ordizian

Otsailaren 5ean aurkeztu zen Ordizia-ko Gaztetxean Gipuzkoako Gazte Asanblada. Gipuzkoako herri ezberdinetako gazte asanbladak proiektu bateratu bat gauzatu nahian elkartu dira. Aurretik egindako bilera ezberdinetan, Gaztetxe eta Asanbladen egoeraren azterketa sakona egin zuten eta arazo ezberdinak aztertu ondoren, Gipuzkoako Gazte Asanblada izan nahi denaren oinarriak finkatu ziren.

Gipuzkoako gazteriaren arteko koordinazioa eta elkar komunikazioa izango ditu oinarri sortu berria den Gipuzkoako Gazte Asanblada honek, "suertatzen diren arazo puntualei erantzun komun eta bateratu bat emanaz. Honek etorkizun batean aurkitu daitezkeen oztopo handienei, ahalik eta erantzun egokiena ahalbideratzea izango du xede. Hau guztia aurrera eramateko, eskualdeko funtzionamen-

duak izango du garrantzi handiena; talde gutxi dauden eskualdeak elkartu ahal izateko aukera baztertu gabe", adierazi zuten prentsaurrekoan. Laguntza izango dute jarrera nagusia, "beste herri batean izanagatik gazte guztion arazoa da eta ekintza bateratuak antolatzeak elkartasuna ekartzen du. Horregatik da hain garrantzitsua ezagutza, ekintzak aurrera eramateko orduan errazagoa egingo baita", diote.

"Gazteok zapalduak gara, langabezia izugarria da, ez digute Gaztetxerik ematen gure helburuak aurrera eramateko, dauzkagun Gaztetxeak ez ditugu behar bezala erabili eta aprobetxatzen... ezin dugu itxaron. Hau guztia ez da bakarrik konponduko, ez eta ahoz gora pasibitatean murgildurik ere", esanez amaitu zuten prentsaurrekoa.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 94388 96 12 Faxa: 94388 27 19

Zuzendaria: Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu Publizitatea: Argider Mujika Erredakzio Batzordea: Mikel Albisu, Joseba Telleria, Ane Martin, Loinaz Agirre eta Estitxu Imaz. Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Elordi Garzia, Nekane Altuna, Eduarne Albizu, Agurtzane Bikuña, Saroi Jauregi, Iñaki Gurrutxaga, Aitziber Murua, Mari Flor Mendizabal, Jakoba Errekondo eta Joxepa Madariaga.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.800 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria

'Euskara, eskubidea eta abantaila' kanpaina martxan: euskarazko irakaskuntza helburu

Otsailean ikastetxeetako aurrematrikulatze garaia dela eta, euskarazko irakaskuntzaren aldeko sensibilizazio kanpaina ari da burutzen Euskal Herri osoko euskalgintza arloko 13 elkarteek eratu duten bilgunea. Goierriko herrietan ere ari dira kanpaina burutzen. Baikara, Bizkaiko Gurasoen Elkartea (Bige), Denon Eskola, Euskal Herrian Euskaraz, Ikasle Abertzaleak, Ikas-Bi, Lab, Nafarroako Ikastolen Elkartea, Partaide, Sarean, Seara, Sortzen-Ikasbatuaz eta Eilas elkarteek erazten dute bilgunea.

Euskaraz jakitearen abantailak azpimarratzea da 'Euskara, eskubidea eta abantaila' kanpainaren helburuetako bat. Batetik, "euskalduntzea eskaintzen ez dituzten ikastetxeak ohar daitezten lerro hauek irekiz gero zentro moderno eta eraginkorraren irudi hobea erakutsiko dutela etorkizunerako prestakuntza akademikoan"; bestetik, "gurasoak ere jabetuara-

Euskara jakiteak abantaila asko ditu, kanpainaren bultzatzaileen ustez. Besteak beste, ondoko hauek aipatu dituzte.

● **Lan markaturako:** etorkizunean, euskara jakin eta menperatzea ezinbestekoa izango da hainbat lanpostu eskuratzeko.

● **Lanbide preskuntzarako:** Euskara jakitea norberaren kurrikulumaren osagarri garrantzitsua delako eta izango delako.

● **Onura pertsonalerako:** Euskara jakiteak kultura zabalagoa izatea dakar, eta horrek ziurtasuna eta ongizatea damaio norberari.

● **Arlo pedagogikorako:** Txikitatik elebidun izateak izugarri laguntzen du beste hizkuntzen ikasketan.

● **Bizikidetzarako:** Euskara erabiltzen den egoera edota inguruetan harremanak normaltasun eta erosotasunez izaten laguntzen duelako.

● **Euskal Herria ezagutzeko:** Euskara jakiteak Euskal Herria bere osoan ezagutu eta bizitzeko aukera ematen duelako.

zi behar dituzte ohar daitezten euskara ez jakitea desabantaila garrantzitsua izango dela beren seme-alaben eskubidea dela eta euren seme-alabak Euskal Herrian bizi eta lan egiteko, baita garapen pertsonalerako ere"; eta azkenik, "seme-alabak dagoeneko euskalduntze lanetan dituzten gurasoei berretsi be-

har die kanpainak beren seme-alaben etorkizunerako erabakirik egokiena dela".

Kanpainarako kartelak eta triptikoak euskaraz, gazteleraz eta frantsesez argitaratu dituzte. Euskarazko leloa, 'Ez itxi begiak / zabaldu begia etorkizuna euskararekin irabazi' izango da.

Erasoa Ordiziako Iberdrolari

Otsailaren 13ko goizaldean ezezagun talde batek Ordiziako Iberdrolako zentral bati sua eman zion. Transformadoreko kableetan kalteak izan ziren, baina inguruko horniketa elektrikoan ez zuen eraginik izan.

HBren Mahai Nazionalean 3 goierritar

Otsailaren 12an Iruñean aurkeztutako HBren Mahai Nazional berrian hiru goierritar daude: Jon Gorrotxategi eta Eusebio Lasa beasaindarrak, eta Karmele Aierbe ataundarra.

Lan istripua Ezkio-Itsason

Lan istripua izan zen Ezkio-Itsason, altzairuzko laminak hanken gainera erorita. 21 urteko legazpiarra zen istripua eduki zuena.

Miren Barandiaran

Beasaingo historialariak Leire Arrietarekin batera, 'Nunca más! Imágenes de guerra (1936-1939)' liburua kaleratu du, Sabino Arana Fundazioaren eskutik. 400 argazkik Euskal Herrian Gerra Zibila-
ren testigantzak kontatzen dituzte.



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN



aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Aulia-enea

☎ 943 80 60 66 LEGORRETA

PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 42095

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

BEASAIN

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

Biosasieta S.A. elkarteak sortu da

Otsailaren 23an aurkeztu zen Beasaingo Udaletxean Biosasieta S.A. elkarteak. Sasieta Mankomunitatea eta EVEren artekoa da elkarteak eta helburua, Sasieta zabortearen sortzen den biogasaren berreskuraketa energetikoa da.

Aurkezpenean EVEko lehendakaria, Eusko Jaurlaritzako bozeramalea den Josu Jon Imaz, eta Goierri eta Urola Garaiako alkateak izan ziren, Sasieta ordezkariekin batera.

Hurrengo alean izango duzue elkartearen nondik norako berri zehatza.

Maria Oruna: Miss Euskadi

Maria Oruna beasaindarrak Miss Euskadi saria irabazi zuen otsailaren 18an Bilbon. Lehiaketa berdinean dotoreziaren saria ere eman zioten. Mariak martxoaren 4 eta 5ean Fuengirolan Miss España izateko lehiaren parte hartuko du.



Irati eta Ekaitz Goikoetxea Mungian irabazle

Mungia II. 'Taket' bertsopaper lehiaketan irabazle izan ziren Beasaingo anai-arreba bertsolariak. 18 urte artekoan, Irati gailendu zen 'Iparragirre, Urretxuko koblakaria' lanarekin. Helduen mailan, Ekaitzen 'Argazki bizidunak' bertso sortak jaso zuen lehendabiziko saria.



Igartza literatur sorkuntzako bekaren lehenengo fruitua: 'Connemara gure bihotzetan'

1998an Beasaingo Udalak, CAF enpresak eta Elkarlanean argitaletxeak 'Igartza Saria' literatur sorkuntzako beka sortu zuten idazle gazteentzat. Lehenengo edizioan Julen Gabiria galdakaoarra izan zen irabazlea eta dagoeneko bere lana kalean da. 'Connemara gure bihotzetan' izenarekin baitatu du lehenengo eleberria Gabiriak.

Bakardadea, oroimena, maitasuna, askatasunaren bilaketa, desleialtasuna, engainua, Euskal Herria, Irlanda... gaiak islatzen dira Gabiriaren eleberrian. Egitura berezia dauka liburuak, hiru atal berezi dauzka. 8 kapitulu ditu eta kapitulu bakoitza hiruna ataletan banatuta: nobela, argazkiak eta ipuinak.

Istoriak hasiera erromantikoa dauka, bukaera ez hainbeste: Txemak galdu egin du bere betiko neska-laguna, Eider, auto-istripu batean. Hura ahaztu nahi eta ezinik dabilela, Eiderrek aurreko urtean Irlandara egindako bidaiaren egunkari bat topatuko du Txemak, klabe sekretuz babesturiko disketean. Eiderren arimarekin bat egiteko eta ondoren betiko ahazteko asmoz, bidaiari hori bera berregitea pentsatu du Txemak, eta Irlanda mitiko horren bila abiatzen da, disketa poltsikoan, zer topatuko duen jakin gabe.

Donostiako liburuaren aurkezpenean, Beasaingo Udaleko eta CAFeko ordezkariekin (Andoni Sarriegi eta Tere Amundarain) batera, Andoni Egaña eta Xabier Mendiguren epaimahaikideak egon ziren. Biek baieztatu zuten, liburuak harrapatu egiten du. Idazkera aldetik konplexua eta ona da Egañaren esanetan. Istoria bitxia eta ondo landua.

Martxoaren 10ean, Beasaingo Udaletxeko Batzarre aretoan egingo da liburuaren aurkezpene, 19:00etan.



AUSO EGI

Urdaneta, 41
©-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✱ Tximini eta egurrezko ekonomiak
- ✱ Berogailuak
- ✱ Iturgintza
- ✱ Zeramika erakusketa
- ✱ Bainuko altzariak
- ✱ Erreforma osoak



Goierrri Lanbide Eskolan demokrazia ikasleontzat!

Azken hilabeteotan Goierri Lanbide Eskolan sortu den gatazka eta zuzendaritzak gatazka honetan erabili dituen azpajokoa publikoki salatzea behartuak izan gara; interes pertsonal eta politikoak tartean direlarik zuzen jo baitute azken bi urteotan lehenengo zuzendaritzak zuen konsensu politikaren aurka.

Gatazkaren mamia greba araudiaren barne, abstentzio-arekiko azaltzen den indeterminazioa erabiliaz zuzendaritzak ikasleekin konsensu batera iritsi gabe zuzenean kontseilu eskolarrera eramatea erabaki zuen zuzendaritzak, kontuan hartuta bertan irakaskuntzarekin zuzenean harremanik ez duten (3 udaletako ordezkari politikoak) ordezkariak daudela.

Ordezkari hauek ikasleoi bakarrik dagozkigun gaietan (greba prozesua, e.a.) ikasleok adina erabaki ahalmen dute. Kontseilu eskolarreko ikasleen ordezkari onestek ikasleoi dagozkigun gaietan ikasleok eduki behar dugu hitza eta erabakia.

Ikusirik lehendik genuen greba araudia kontseilu eskolarrean konsensuz erabaki zela, gure harri durarako zuzendaritzak hainbat gezur bitarteko (ikasle onestekariok ikasleak "koakzionatzen" /beldurtzen ditugula, e.a.) greba prozesuan azaltzen den ikasgelan geratzeko aukerarikiko puntua aldatzea erabaki zuen kontseilu eskolarra baliabidetzat erabiliaz.

Zuzendaritzak indarrean ezarritako arauak anonimotasuna gordetzen badu ere, ez du bermatzen alde batetik greba prozesuan parte hartu duten ikasleek prozesuko emaitza errespetatuko dutenik, eta bestalde ez du bermatzen klasean geratzeko aukera egin duten ikasle onestentzia; jakinik Goierri Lan-

bide Eskolan klase asistentzia ezinbestekotzat arauturik dagoela.

Ikasleok aurkeztutako proposamenak berriz anonimotaz gain klase asistentzia ere bermatzen du.

Hau honela izanik astelehena, otsailak 14, ikasleok eginiko batzarrak klaseak etetzea erabaki zuen, zuzendaritzak ikasle onestemen proposamena aintzakotzat hartu arte.

3 eguneko borrokaren ostean zuzendaritzak ikasle onestekari guztiekin eta irakasle onestekariekin eginiko bileran ikasle onestemen proposamena aurrera atera zen irakasle onestekari birmoldaketa batez lagundua. Honela hurrengo egunean ikasle onestekari batzarrak ikasgeletara itzultzea erabaki zuen.

Baina gatazka ez da hemen bukatzen ahalik eta zuzendaritzak proposamen hau aurrera ateratzeko hartu zuen konpromezua bete arte.

Azkenik salatu zuzendaritzak gatazkari irtenbidea bilatu ezean mehatxu, gezur eta trikimailu ustelak erabili dituela, hala nola, expediente onest mehatxuak edota gurasoei gezurrez beteriko eskutitzen igorketak, e.a.

Bestalde eskertu hainbat irakasle onestekari aldetik gatazka gainditzeko jarri duten borondatea eta adierazi beste behin ere bai Goierri Lanbide Eskolako zuzendariari eta baita Euskal Herriko ikastetxe guztietako zuzendaritzei ikasleok dugu hitza eta erabakia!

Goierri Lanbide Eskolako kontseilu eskolarreko ikasle onestekariak:
Joseba Hernandez, Mikel Luloaga,
Mixel Zurutuza

U-27

Urtarrilaren 27ko grebaren inguruan makina bat balorazio irakurri ahal izan dugu azken egunotan. Baina bada fal-

tan somatzen den zerbait. Greba txepela izan zela, ez zela atzeman ere egin greba eguna zenik... izan dira ikurri eta egin diren balorazio hauen oinarri, baina ia inor txok ere ez du aztertu horrelako erabaki bat hartzearen zergatirik!

Konbokatoria hau gizarteari jakinarazi zitzaion momentuan presoak borrokaldi tinko batean sartuta zeuden, 'borrokalaria politiko' batean ohizkoa den bezala eta hainbeste esperantza eta lan egiteko gogoia sortu zuen prozesua berriz, 'inpass' batean murgilduta zegoen, presoak ere borrokaldi mugagabean sartzearen arrazoi nagusia izanik. Eta hemendik abiatzen da greba orokorra, nahiz eta aurrez jakin horrelako aurrerapauso bat emateko garaian guk nahi adina indar ez genuela izango.

Baina gauzak ez dira nahastu behar; konbokatoria euskal gizarteari helerazi zitzaion, alderdi, sindikatu, mugimendu sozial zein edozein herritarri eta multzo handi batek aldarrikapen honen tamainako determinazioarekin prozesuak eskatzen zuen aurrerapausoa eman nahian izugarritzko lanak egin genituen eta fruituak ikusi ziren, hau ukaezina da.

Aurrerapauso bat izan dela esaterakoan euskal herritar askok eta askok, era ezberdinetara adierazi baitzuen prozesuari eman beharreko bultzada ezinbestekoa zela, (bai Lizarra-Garazin bai Udalbiltza bezalako guneetan onarturikoa), euskal gatazka deiturikoaren funtsa politikoa zela, beraz eta ondorio garbiz euskal presoan izaera politikoa status politikoa onartzea ezinbestekoa dela. Euskal prozesu demokratiko batean euskal errepresaliatu guztiak parte ukaezina direlarik beraz Euskal Herrian, etxean, kalean, lantegietan egon behar dutela.

Grebarekin bat egin ez zutenek (eta kontra aktiboki egin zutenek ere) esan dezatela urtarilaren 28tik aurrera (aurretik bezala) Euskal Gizarteari inongo proposamen zehatzik egin gabe jarraitzen dutenez oraindik, (presoen inguruan, Udalbiltza...) zer proposamen duzuen.

Nola arraio ulertu behar du Euskal Gizarteak, hain itxaropentsu hartu zuen Euskal Herriaren izatea errebindikatetik, Euskal Herriaren eraikuntza nazionala martxan jartzeko urratsak ematetik Espainiar hauteskundeetan parte hartu, gure instituzio propioen garatzea gelditu eta euskal errepresaliatuen inguruan adosturiko proposamenak bertan behera botatzeko prozesuak aurrera egitea. 20 urte eta gero estatuto tranparik ez.

Aitor Garmendia - Ana Zurutuza

Txemi Arteaga askatu

Txemi Arteaga beasaindar presoaren koadrilakoak zuzenagana zuzentzen gara bere egoera larria azaltzeko.

1993ko abuztuaren 4an kartzelera zuten eta dispersioaren ondorioz kartzela desberdinetan (Valdemoro, Albacete, Langraitz) egon ondoren, gaur egun Valencian dago, bere zigorraren 3/4a beteta dituelarik 1998ko udazkenaz geroztik, Orain gose greba mugagabean dago. Egoera hau izanik eta koadrilan sortutako kezkak eraginda Txemi Arteagaren baldintzapeko askatasuna eskatzen dugu, legea betez.

Baita ere herritar, alderdi politiko, sindikatu eta giza erakunde guztiei eskatzen diegu legea bete dadin ahalegin guztiak egin ditzatela.

Besterik gabe besarkada handi bat Txemi lagun onari.

Txemiren koadrila (Beasain)



**Mikel
Aranburu**

(Goierriko
Bertso Eskolako
ikasle ohia)

Gasolinaren igoera

Gasolinea igo ta igo
Ez gendun behar besterik
Petroliotian itto behar dira
Arabe nazkante horik
Danok ohituta gauden bezela
Nork ez dauka kotxerik
Le(he)nago ere merkeak dira ba
Hoiek dituzten aberik
Ta gasolina gehiago igo
Orain ditugu komerik.

Petroleoa gora ta gora
Ta pezteaz berriz be(he)ra
Eta horrela segiko dula
Nik hartzen diot tankera
Inork kotxea erostekotan
Aurrez kontuak atera
Aitzaki hortan oinez joatea
Nahiz ez genduken galera
Berriro ere danok kotxean
Berdin ibiliko gera.

El Ejido

Ezaguna zaigu herri horren izena. Gutxien dakienak ere badaki arazoak dituen herri bat dela. Arazo ekonomikoak?, arazo politikoak?, arazo xenofoboak?, elkarbizitzako arazoak? Denetik. Hasieratik gaizki egindako lana lehertu egin baita, giroak zart egin baitu.

Plastikoz estalitako herria da El Ejido. Lur zoru guztia negutegi bihurtua da eta lurraren esplotazioak goia jo du. Jakin nahi nuke hazia erein eta zenbat ordutan heltzen diren han barazkiak. Heldu edo... lurretik atera, kamioi frigorifikotan sartu eta munduan zehar zabaldu, geure etxetara txukun eta garbi baina erdi berde iristen direlarik.

Lurra neuririk gabe esplotatzeko, eta irabazi handiak izateko, gutxi batzuk aberasteko, eskulan merkea derrigorrezkoa da. Zein egokiagoak esplotaziorako magrebiarrak baino? Baldintzarik txarrenetan ere txintik atera gabe lanerako beti prest, sos batzuen truke, miserizko soldataren truke.

Kopuruak indarra ematen du orde, eta indarrak ahotsa. Magrebiar bakarra etorri izan balitz El Ejidora lanera berehalaxe bertakotuko zen, baina milaka izanik adiskideak, herrikideak, ia ia beren herrian bezala biziko dira Andaluzian: beren hizkuntzan moldatuko dira, beren kultura eta ohiturak mantenduko dituzte, berriekin, bertakoekin kutsatu ere egin gabe...

Mugarik gabeko herriak nahi ditugu, baina herri bakoitzak ez al dizkie bere seme-alabei oinarritzko bizi baldintzak eskaini behar?, legezkoa al da ostikoz eman eta beste herrialde batera bidaltzea?; bidaltzea baita bertan bizitzeko aukerarik ez ematea. Berdin, onartzen dituen herrialdeak ere, oso baldintza txarretan bakarrik onartu, gau eta egun esplotatu eta aurrera!?

Norbaitek "nahikoa da!" esaten duenean, orain arteko gezurrezko oreka erabat apurtu eta tentsio latza sortzen da. Batzuk orduan bakarrik, leherketaren ondoren, konturatzen gara zerbaitetan huts egin dugula, zerbaitetan ez ginela ondo ari.


Pentsakera xenofoboak ote ditut?

Xenofobia, atzeritarrekiko edo atzerriko gauzekiko gorrotoa edo aurkako jarrera izatea da, hiztegiak dioenez. Horrelakorik ez dut sentitzen, baina denok gure herrian duin bizitzeko eskubidea dugula edo izan behar dugula bai. Marokoarrek Marokon, espainiarrek Espainian eta euskaldunok Euskal Herrian. Mugak kendu eta guztiok nonahikoak izatea inongoak ez izatearen parekoa da.

Beraz, nahiz eta bakoitza bere herrian eta bere herriaren alde jardutea izan politena eta zuzenena, herrialde batekook beste batera joateko eskubidea izan behar dugu, noski baietz, baina bertakoan integratzeko, ez geurea inposatzeko.



Joxepa Madariaga



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

**ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.**



Jakoba Errekondo
Paisajista

Neguairen amaiera aldera inguratzaren ari gara eta horrenbestez zuhaitz eta zuhaizka gehienak inauzteko sasoiari sartzen gara. Azken urte hauetan inausketa lanak gero eta azkarrago egiten dira eta urteetan irautea nahi dugun landareentzako ez dago goiz inaustea baino ohitura txarragorik. Udaletako lorazainek zerbitzuez arduratzen direnen menpe lan egiten dute eta kale-etako garbitasunaz hauek berak arduratzen direnez, espaloietan plazatan orbela ikusi baino nahiago izaten dute hostoak erortzen hasi ordurako zuhaitzak inausi. Gainontzekoentzako udal lorazainak "profesionalak" dira eta hauek egiten dutena da ondo egindako lana. Ondorioz denek inauten dute garaiz kanpo.

Udazken amaieran edo negu amaieran inausi? Gure aldean landareak ondo presta-

tzen dira urte-sasoi bakoitzera-ko. Eguna laburtzen hasten denean argitasun kopuruak eta termometroak behera abiatzen dira eta landareetan negua datorrenaren kezka sortzen da. Kezka hau piztu ordurako neguko loaldia prantatzen hasten dira:

- Hostoetan dagoen janaria apurra negua igaro beharko duten adar, enbor eta sustraietara biltzen dute, honela hostoetan janaria eraldatzen duen klorofila berdea desagertzen da eta beste koloreetako pigmentoak azaltzen dira (gorria, horia, laranja, marroia, larua, etab.)
- Hotza gehien pairatu beharko duten adarrak eta enborra babesten dituzte, azala lodituaz.
- Datorren urtean puja berriak garatu beharko dituzten begi eta ernamunak ezkata lodiz babesten ditu.
- Udaberrian, eguraldia hobetu ahala puja berriak eman ahal izateko erreserbak hornitu eta osatzen ditu.

Ikus daitekeenez landareak bere burua negura egokitzen badaki. Udaberriko izerdi berria etorri aurretik inausiz gero

eragiten dizkiogun kalteak nabarmenak dira:

- ✓ Izerdi berria iritsi artean itxi ezingo dituen zauriak egingo dizkiogu. Zauri hauetatik berrina hezetasuna, gaitzak izurriteak etab. sartuko dira. Inausketa negu amaieran eginez gero, ordea, izerdi berria orduantxe dator behetik gora eta zauria egin ordurako izerdi honek itxiko du landarearentzako arrisku gehienak uxatuz.
- ✓ Inausketa neguauren aurretik eginda datorren urtean garatu nahi dugun forma emango duen ernemuina edo begia uzten dugu lehenengo. Aurtengoa bezalako izozteak izaten badira izoztu, erre eta galtzen lehena ere begi hauxe izango da. Inausketa egin gabe adarraren lehen begia erreko da eta hau neguairen amaieran egiten den inausketan kenduko da aurrerako komeni zaigun begia bizirik mantentzen delarik.

Beraz, hemendik aurrerakoa da inausketak gauzatzeko sasoi aproposena. Landare bakoitzak ederki adierazten du, izerdi berriarekin ernemuinak puztutzen hasten direnean, alegia.

Lehiaketa

Galdera

Nongoak dira Erga Omnes musika taldeko kideak?

Erantzuna martxoaren 6rako bidali behar da, Ordiziako 124 postakutxara. Bertan izena, helbidea eta telefono zenbakia zehaztuz.

Saria Erga Omnes taldearen CDa eta GOIERRITARREN kamiseta.

Aurreko irabazlea

Aurreko galderaren erantzuna: Murumendi.

Irabazlea:

Izar Sarriegi (Beasain)

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

OSTEOPATIA MEDIKU ZENTRUA

Rikardo San Vicente Dr. Koleg. Zkia. 4371

Pariseko Bobigny Unibertsitateko Medikuntza Fakultatean Osteopatian diplomatua

- ✕ **Lunbalgia, dorsalgia, zerbikalgia, sorbalda mindu eta gainontzeko lokomotozio-aparatuaren arazo mekaniko-funtzionalen eskuzko medikuntza tratamendua.**
- ✕ **Tendinitis, gihar, tendinoso eta gihar-eskeleto arazoaren elektromedikuntza bidezko tratamendua.**

Ordutegia: 16:30etik 20:00etara. Aldez aurretik txanda eskatu

☎ 943 880 728

Garmendia Otaola 7 behea.

BEASAIN

Euskara txukunean

Sukaldaritza hiztegia

- ✓ Nahaskia revuelto
- ✓ Arbaldatuta rebozado
- ✓ Baratzuritan al ajillo
- ✓ Urazukretan en almíbar
- ✓ Zurrupakia sorbete
- ✓ Marinel erara a la marinera
- ✓ Biribilkia redondo
- ✓ Mandazain erara ajoarriero erara al ajoarriero

Nola hasten dituzu inauteriak?

Ostegun Gizen egunean arratsaldean Alcoyano txarangarekin.

Zein da egunik onena?

Astelehena. Eguna eta gaua, astearteko agardiente eta zezenetaraino.

Mozorroa, inork ez ezagutzeko modukoa ala aurpegia agerian uzten duena?

Berdin da, bakoitzak sentitzen duenaren arabera.

Zein da jantzi duzun moztzorrik onena?

Orain dela urte batzuk, zonbi bezala, zoragarria izan zen.

Mozorroa zertarako?

Liberatzeko.

Mozorroa originala ala eroso?

Erosoa.

Zer da beharrezkoa inauterietan?

Askatasun sentsazioa, bizitza normalean dauzkagun zenbait muga alde batera uztea.

Zer ez da egin behar Tolosako inauterietan?

Festa oztopatu, edozein alderditik.

Inauterietan gehiago ligatzen al da?

Aukerak zabaltzen dira, noski.

Ezberdina al da inauterietan edo Sanbartolometan moztzorrotzea?

Biak festa oso onak dira, baina moztzorrotzerakoan ezberdinak dira.

Inauterietarako plan bat?

Festa profanoa denez, liberatu eta gu geu izan. Hiru egun dira eta osasunerako oso ona da.

Inauterietarako musika bat?

Galtzaundi, dudarik gabe.



Tomas Lasa


Zegaman bizi den tolasarra

Inauterizalea



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



Suquia

**SUKALDEKO
ALTZARIAK
ELEKTRAGAILUAK**

ERAKUSKETA:
☎ 943 88 23 00
Kale Nagusia, 10
ORDIZIA

Zuhaitz egunean Goierrin 600 zuhaitzetik gora aldatuko dira

Aurtengo zuhaitz eguna bihar, otsailak 26, ospatuko da. Aipatu eguna dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Sailak ekimen berezia bultzatu du, hain zuzen Gipuzkoako udalerriei zuhaitz landaketa bereziak egiteko aukera luzatu die. Lerro hauek idazteko unerarte, Foru Aldundian Goierriko sei udalen (Beasain, Ordizia, Lazkao, Ormaiztegi, Zegama eta Segura) baietza jaso izan dute aipatu ekimena aurrera eramane eta zuhaitz landaketa bereziak egiteko nahia adieraziz.

Aipatu udalerri horietako bakoitzak, herritarren lagun-



Olaberriako pagoa.

tza eta partaidetzaren bitartez, herrilurretan landatuak izango diren 100 zuhaitz inguru jasoko ditu. Zuhaitz espezieak lizar, urki, haritz, pago eta gereziandoak izango dira.

Basoen bilakaera

Zuhaitz eguneko landaketen eta egun horren inguruan herritarren ospatuko diren ekitaldi desberdinen helburua herritarrok naturarekiko kontzientzia hartzea izango dute. Azken urte hauetan, inguratzen gaituzten mendi, baso, belardi eta abarrekiko arreta

eta beraien kontserbaziorako ahalegina asko areagotu da. Dena den, aurrerapen asko eman badira ere, naturarekiko eginbeharrek amaierarik ez dutela esan dezakegu; ondorioz natura eta ingurugiroarekiko guztion arreta berezia ezinbestekoa da.

Euskal Herriko basoen bilakaeran XVIII. eta XIX. mendeak erabakiorrak izan ziren. Besteak beste, itsasgintza indus-

triaren garapena, oletako egur ikatzaren kontsumo izugarria eta gose eta gabezia egoerek basoak baliabiderik apalenetara eramane zituzten. Aipatu mendeetako gehiegizko baso mozketak eta basoberritzen eginiko lan eskasak, Euskal Herriko baso gehienak XX. mende hasiera ia landaretzarik gabe iristea ekarri zuen. Ordu ezkerotik basoek bizi izan duten bilakaera gora-behera handikoa izan bada ere, egun basoen egoera oso bestelakoa dela esan dezakegu.

Goierriko azaleraren banaketa

Goierri eskualdeak 38.857 hektarea ditu, berauetatik 37.400 hektarea landaredia dira. Zuhaitz basoa da nagusi (27.047 hektarea). % 81 jabego pribatuaren esku dago; jabego publikoa % 18,61 bakarrik da. Gainerako landaretza azalera, neurri askoz ere txikiago batetan, belardi (7.227 hektarea), sastrakadi (2.164 Ha.), larre-toki (875 Ha.) eta laborantza intentsiboek (87 Ha.) osatzen dute.

Goierriko zuhaitzak pinu edo koniferoak eta hostodunak dira. Pinuek Goierriko eskualdearen 15.627 Ha. hartzen dituzte, hostodun zuhaitzek berriz, 11.420 Ha.. Guz-tira, 27.047 Ha..

● **Pinu edo konifero talde-tik** basoetan ugariena intsinis pinua da (10.059 Ha.). Hain zuzen, intsinis pinuari dago-kionez, Goierri eskualdea Deba Garaiarekin batera Gipuzkoako buruan aurkitzen da. Intsinis pinuaz gain Goierri eskualdeko basoetan

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Ellosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



ZALBIDE
TOLARE
SAGARDOEGIA

Arraiak parrilan

☎ 943 65 21 76

ABALTZISKETA



JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak

Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

☎ 943 18 72 57



larizio pinua (2.574 Ha.), alertzea (1.076 Ha.) eta Douglas izeia (928 Ha.) ere aurki ditzakegu.

● **Hostodun zuhaitz** taldearen barnean ugariena pagoa (6.490 Ha.) da. Baso atlantiarra (3.162 Ha.), haritza (1.222 Ha.), artea (299 Ha.) eta haritz amerikarra (249 Ha.) aipatu kopuruetan banatzen dira.

Aralar Parke Naturala

Orain arte azalduko datue-tan argi agertzen da Goierri-ko azaleran zuhaitz basoek duten garrantzia. Horiek guztiek eskualdearen natur baliabideen aberastasuna dakarte. Baliabide horien arte-tik azpimarragarrienetarikoa Aralar Parke Naturala da. Gipuzkoako eremuari dago-kionez, 1994ko ekainaren 29an, eman zion 'Parke Na-tural' izendapena Eusko Jaurlaritzak. Parke Natural izendatzearekin batera, Ara-larko Natur Baliabideen An-tolamendu Egitasmoa jarri zen indarrean eta bi urte be-randuago, 1996ko otsailaren 22an, Patronatuak Erabilera eta Kudeaketarako Plan Era-entzailea onartu zuen.

Goierriko zuhaitz bereziak

Euskadiko zuhaitz berezien artean, Eusko Jaurlaritzako Goierriko bost zuhaitzi zuhaitz berezien izendapena eman zien.

● **Altzagako artea:** Altzaga-ko San Migel elizaren aurrean kokatzen den artearen berezi-tasun aipagarriena enborraren neurria da. Hain zuzen bere perimetrea 3,40 metrokoa baita, altuera berriz 19 metro-koa.

● **Olaberriko pagoa:** Olabe-rrian pagoari adar eta enborra-ren itxurak eta bere neurriek berezitasun berezia ematen diote. Bere enborraren perimetrea 3,70 me-trokoa da, altuera berriz 24 metrokoa.

● **Zegamako gaztainondo-urkia:** Zegama-tik Altsasura doan errepidean kokatzen den gaztainondo-urkia zuhaitz honen berezitasu-na, urkia gaztainondoaren adar batean zuz-tartua dagoela da eta ez enborrean.



Altzagako artea.

● **Zegamako pagoa:** Beundeko pagoa ize-nez ezagutzen den zuhaitz hau Otzaurte gai-nean kokatzen da. Bere neurri eta ezauga-riek zuhaitz berezien artean kokatzen bada-te ere tximista batek eragindako kalteen on-dorioz egoera txarrean aurkitzen da.

Aitziber Murua

Aralar Parke Naturala 10.956 Ha. osatzen dute. Ize-nak berak adierazten duen bezala, bere azaleraren gehiengoa baso naturalek osatzen dute (3.949 Ha.). Mendi larreak (2.684 Ha.) eta zuhaitz landaketak (1.909 Ha.) ere garrantzitsuak dira.

Aralarko basoetan espe-zierik ugariena pagoa da (2.029 Ha.), haritz (798 Ha.), arte (229 Ha.) eta haltzaldiak (38 Ha.) kopuru txikiago ba-tean agertzen dira. Bertako artadi, haritzi eta mendi be-lardiak balio handiko landa baliabideak dira.

Hauek guztiak Goierri na-tur baliabide aberatseko es-kualdean bilakatzen dute. Zuhaitzi, baso, belardi, Ara-lar Parke Naturala eta izen-dapen ber-bera lortzeaz da-goan Aizkorrik ingurune era-kargarri baten osotasuna ematen diote eskualdeari.



IBAI-ONDO

Altzariak neurritan

Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

ERAKUSKETA ☎ 943 88 05 43
Antzizar Auzoa, z/g **BEASAIN**



**Barandiaran
ZERAMIKAK**



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 **Senpere, 7 BEASAIN**

Inaxio Aierbe ataundar errefuxiatua hil da, etxera itzuli eta bost hilabetera

Otsailaren 14an hil zen Inaxio Aierbe errefuxiatua, Ataun San Gregorioko Lauziturrieta jaiotetxean. 51 urte zituen eta minbiziaren ondorioz hil da. 1970 urte inguruan ETA erakunde armatuan sartu zen. 1975ean Iruñeako kartzelan sartu zuten. Bost hilabete egin zituen, amnistiarekin kaleratu zen. 1979an Ipar Euskal Herrira alde egin izan zuen, bere komandokideak poliziak harrapatu baitzituen.

Iparaldean bi atentatu

Ipar Euskal Herrian 8 urte egin zituen. Paris eta Madrilgo gobernuak hasiak ziren ETArek aurkako elkarlanean. GALen bi atentatutan bertantxe izan zen: bata Hendayais tabernan, bi hildako izan ziren; bestea, hitzordu batean auto bat inguratu eta tiroka hasi zitzaizen. Bietatik ere onik ihes egitea lortu zuen.

Aljeria eta Venezuela

1987ko urrian Frantziako Poliziako sarekada zabala egin zuen Ipar Euskal Herrian eta tartean Inaxio Aierbe atxilotu zuten. Aljeriara deportatu zuten. Aljeriako negoziaketak gertutik ezagutu zituen eta haiek porrot egiterakoan errefuxiatuak Venezuelara eraman zituzten.

1989ko udaberria zen. Venezuelan Euskal Herriatik gertuago sentitu omen zen. Caracasko Euskal Etxean euskal kulturaren inguruan lanean aritu zen. Ahoko minbizia atzeman zioten eta bertako lagunek emandako laguntzari esker erradioterapia eta kimioterapia saioak jaso



Otsailaren 19an egin zitzaion omenaldia.

zituen. Gaingitu egin zuen bere gaixotasuna.

1998. urtean, 'Euskaldunok Euskal Herrian libre' kanpainaren barruan, Ipar Euskal Herrira itzultzea erabaki zuen. Orduan koloneko minbizia zuela esan zioten eta sei hilabeteko bizi itxaropena eman zioten. Bere jaioterrira, Atauna itzultzea erabaki zuen.

Itzulera Atauna

1999ko irailaren 22an itzuli zen. Ongi-etorri jendetsua egin zitzaion San Gregorioko plazan. Inaxioren hitzetan, "egun ahaztezina izan zen, ametsetako etorrera egia bihurtua".

Hogei urteotan gauzak asko aldatu direla uste zuen ataundarrak. "Aurrerapenak izan dira, zalantzarik gabe. Beste egoera politiko batean gaude. Lehen abertzaleak elkarren lagun baino gehiago etsai ginen, eta orain badirudi ikusi dugula lagun izan behar dugula eta horrek onurak ekarriko diola Euskal Herriari. Bidea zaila da, eta gertatuko dira, orain bezala, gora-beherak, baina horrek ez gaitu atzera begira jarri behar".

Etorkizunari begira baiko-rra zen Inaxio: "norabide onean sartzen hasita gaude, eta itxura txarrik ez du, nahiz eta egoera zailean egon. Euskaldunok eta bereziki abertzaleok hitz egiten dugu, eta hortik etorri da aterabidea. Atzera itzuli gabeko bidean sartuta gaude, eta denon lana da aurrera egitea Euskal Herriaren askatasunean".

Elbarri

6 urte betetzear zela, poliomielitis gaitza harrapatu zuen eta ondorioz, bi maku- larekin ibili behar izan zuen. Maximo Aierbe, Inaxioren anaiak, prentsaurrean, elbarri izatearen ondorioz, bizitza antolatu beharra ekarri ziola esan zuen. "Izugarria zen gauzak gaingituzeko berak zuen indarra", esan zuen. "Bere borroka antolatzen jakin du. Baina azkenaldian beste borroka bat etorri zaio: heriotza antolatzea". Maximok herritarrek eskainitako berotasuna eta laguntza eskertzeaz gain, bere anaiaren borrokarekin harro egoteko moduan daudela esan zuen; "bizitza guztia duintasunez eraman du, bere azken arnasa ere bai".

Mobilizazioak

Otsailaren 16an, Ataun San Gregorion prentsaurrea eman zuten Goierriko Ezker Abertzaleko ordezkariak. Inaxio Aierberen heriotzaren aurrean mobilizazio ugari antolatu zituzten. Besteak beste, 18an, Ataunen greba eguna deitu zuten eta Goierriko gainerako herrietan, 12:00etatik 14:00etara bitarteko geldialdia. Ordu batean Beasaindik Ordiziarra manifestazioa egin zuten. Omenaldia 19an, larunbatean, egin zitzaion San Gregorioko plazan.

Ezker Abertzalekoen esanetan, "heriotz honen eragileek ez dute inoiz erreibindikatu baina guk badakigu zeintzuk diren; hots, PSOE, PP, ERPR, UDF, PSF eta errepresio polizialek herri honen borondatea iraunkorki bortxatzen duten guztiak dira heriotz honen erantzule". Ataundarrak "belaunaldi anitzten lotura militantea burutu zuen Goierri eta Sakanan. Besteak beste, ezker abertzale osoaren erreferentzi argi eta errespetatua izateraino iritsi zen bere xumetasun fisikoan", gaineratu zuten.

Ezker Abertzalekoentzat eredugarria da Inaxioren bizitza, "duintasun handiz jardun du herrigintzan eta horrelaxe ulertu dute ataundarrekin". Era berean, Ataungo Herrigintza, EAJ eta EA-ko alkate eta zinegotzien jarraitzaile zuten, "erakutsi duten morrontza eta koldarkeria politikoak lotsatu egiten gaituela diogu".

Gaztetxeak 14 urte bete ditu

Gaztetxeak urteak betetzen dituela eta ekintza mordoska antolatu dute asteburu honetarako Gaztetxeako gazteek. Gaur arratsaldeko 5etan botako dute txupinazoa Gaztetxeako balkoitik eta ondoren haur animazioa izango da herriko plazan (suzko malabareak, txotxongiloak, zangoak, pinturak, txokolatea e.a.). 7etan zine emanaldia pilotalekuan eta gaueko 10,30etan festa afrikarra Jim Jim taldearekin.

Larunbatean, hilak 26, paela lehiaketa izango da kanpoko pilotalekuan goizeko 11,30etan. 2etan bazkaria Gaztetxean bertan. 5etan Txus Kongil-ekin drogomenpekotasunari buruzko eztabaida Gaztetxean. 7etan polizipaiorik gabe manifestaldi animatu, zaratatsu eta pazifista mistikoa herrian zehar Gaztetxea konpontzeko eskatuz. Gaueko 11etan hasita kontzertua izango da pilotalekuan Storbais, Potrotaino, El Corazon del Sapo eta Etsaiak taldeekin.

14. urtemugari amaiera emateko igandean, ajeak alde batera utzita, arratsaldeko 7etatik aurrera sokatira lehiaketa izango da Goierriko Gazte Asanbladen artean. Baita aktibitate erakusketa eta dantzariak ere. Amaitzeko lau malko, irrintzi bat eta amaierako traka izango dira.

Kaldereroen konpartsa

Baina Gaztetxeakoek antolatutakoaz gain, larunbatean kaldereroek ere euren bizitasuna emango diete herriko kaleei. Aspaldiko ohitura hau berreskuratu nahian antolatutako ekitaldia dugu hau eta aipatu arrakastaz burutu izan dela orain arte. Gaueko 10,15etan aterako da galdaragileen konpartsa Garagartza Plazatik, ondoren Ordizia Kaletik jaitsi, Santa Maria Kanean sartu eta Fray Andresen buelta eman eta gero, Kale Nagusitik barrena Enparantza Nagusiraino iritsiko dira ijitook hemen kanpamendua ipiniaz. Ibilbidean zehar hainbat gel-

Martxoak 8

Emakumeen eguna ere hurbiltzen ari zaigula eta Kimetz emakumeen elkarteak hainbat ekintza antolatu dituzte martxoaren 8ko egun berezi horren inguruan. "Non dago zure laranja erdia" deituriko erakusketa ikusgai egongo da gaurtik martxoaren 8ra bitartean Barrenan. Martxoaren 2an Donostiako Termetara joateko gonbitea luzatu dute eta egun berean Patxi Morales artistaren ikasleek kalean margotzen ariutako dira eta ondoren lanak erakusgai izango dira. Martxoaren 7an Bideoforumak Eskarne Larrinaga pedagogoarekin. "Freda eta Camilla" filma emango dute eta ondoren eztabaida izango da. Martxoaren 9an Arrate Leunda kontu-kontalaria ariutako da liburutegian. Hainbat ekintza gehiago ere antolatu dituzte baina horren berri izango duzue hurrengo alean. Aipatu besterik ez aurren ere Kimetzek antolatutako VI. Literatur Lehiaketa martxan dela eta oinarriak jaso nahi badituzu Barrenara hurbildu besterik ez duzula.



98 bikote mus txapelketa azkarrean

Jesus Goñi eta Antonio Carrion donostiarrak izan ziren Argi Berri Elkarteak antolatutako XXIII. Mus Txapelketa Azkarreko irabazleak. 98 bikotek eman zuten izena eta partidak aurrera joan ahala Jose Ramon Urbizu (iazko txapeldunetako bat)- Gabriel Mujika zegamarrak eta aurretik aipatutako donostiarrak iritsi ziren finalera. Azken hauek 150.000 pta. eta txapelak eskuratu zituzten. Aipatu Goierriko muslariez gain kanpotik ere jokalaririk ugari etorri zirela, hala nola, Azpeitia, Legazpia, Intza, Etxarri eta baita Marcillatik ere. Sarri Pubaren eskutik jarritako sari berezia (Kubara bidaia) jaberik gabe geratu da oraingoz baina datozen urteetan izango da sari hori eskuratzeko aukerarik. Egun berean egindako zozketak ere antxume eta arkumeen jabeak eskatzen dituzte. Arkumeak: 1.498, 4.814, 4.374 eta 3.862. Antxumeak: 4.664, 4.838, 2.441 eta 2.599.

diune ere egingo dituzte euren abestiak kantatzeko asmoz.

Zezen astea

Duela urtebete sortu zen 'El Albero' talde zezenzaleak zezenaren astea antolatu eta hainbat ekintza burutu ditu pasa den astean. Larunbatean bertan hainbat torero famaturrekin solasaldia eta afaria izan zen eta asteazkenean Francisco Tuduriren eskutik hitzaldia Barrenan. Honezaz gain erakusketa zabalik dago otsailaren 27 arte eta ikusgai daude hainbat traje distiratsu, eskultura eta kartel.

Futbol txapelketa

XXI. Lagunarteko Futbol Txapelketa hasi zela aste gutxi batzuk pasa dira dagoene-

ko eta parte hartzen duten 16 taldeetako jokalariek lehen "agujetak" alde batera utziz forma ona hartzen ari direla erakutsi dute orain artean. Wiskas eta Sylum talde antolatzaileek bi multzotan banatu dituzte herriko taldeak. 'A' multzoan Ferrocarril Oeste, Irrintzi, Txola, Vicuña Sport, Morapios, Badago, Bustunmira eta Wiskas dabilta nor baino nor eta 'B' multzoan, berriaz, Mon Poupe, Usunbilla, Because Rangers, Harrike, Sylum, Haydaos, Urbitarte eta Matxain. Bigarren fasea multzo bakoitzeko lehen lau taldeak pasako dira. Beti bezala neurketak larunbat arratsalde eta igande goizetan jokatzen dira anexoan.

Aitor Calvillo



'Zeasma: Biharko Zegama'

1996. urtean, Zegamaren egoeraz kezkatutik hoge bat herritar hamabostean behin elkartzen hasi ziren Goiekiko bi teknikariren laguntza eta esperientziak baliatuz. Lan talde honen sustatzaile Udala bera izaki, Udalak oso-osoan parte hartu zuela esan behar.

Talde honen ustez Zegamak etorkizunean zein bide hartu behar zuen aztertu egin behar zen eta horretarako behar-beharrezkoa zen Zegamako azterketa orokor bat egitea. Horrela, urte osoa pasa zen Zegamak zituen abantaila eta hutsuneak azpimarratzen eta diagnosi horren ondoren zein ekintza egin beharko liratekeen markatzen.

Eztabaia luzeen ondoren 24 estrategia edo ekintza proposamen markatu ziren, bertan aipatzen zirelarik ekintza horren ardura nork hartu behar zuen eta zein epetan egin beharko zitekeen ere.

24 ekintza proposamen hauek lehentasunen arabera zerrendatu ziren eta aldi berean 4 ildotan sailkatu ziren: **1.-** Lan merkatua eta kualifikazioa hobetu (hitzaldia otsailean) **2.-** Biztanlegoaren bilakera ezkorriari aurre egin (hitzaldia ekainean). **3.-** Baliabideak eta irudia (hitzaldia apirilean). **4.-** Mentalitatea eta giro politikoa (hitzaldia urrian).

Azterketa lan hau egin zenetik 4 urte pasa dira, eta bertan markatutako zenbait ekintza proposamen jadanik bete daude eta bestalde lehen-lehentasunezko ekintza zena gaur egun beharbada ez da garrantzitsuena edo bigarren mailako bihurtu da. Ondorioz, ekintzen lehentasunei buruz azterketa berri bat egitea ere komenigarri ikusten da.

Hori dela eta, 'Zeasma: Biharko Zegama' deituriko

Asemendiren alde

1999ko uztailan erretako Asemendi baserriaren alde lan egiteko batzorde bat sortu zen. Bertan, Udal ordezkariak, herriko zenbait elkarte eta auzokidek parte hartu zuten. Zenbait ekintza eraman dira aurrera: etxe erre eskea, festetan Orkatz abesbatzaren taberna larunbat gauean Asemendiren alde lan egitea, bertso jaialdia, erri-fak, e.a. Emaizak onak izan direla eta, batzorde honen ustetan bere egin beharra bukatu da.

Aldi berean, Asemendi Barrena baserrikoek, bere eskerroa adierazi nahi dio Zegamako herriari eta baita beraiekiko elkartasuna adierazi duten guztiei.



Errifa sariduna Orexako Jose Atxega da. Argazkian Daniel Barcos Nissanen bantzailearekin agertzen da.

taldeak, 2000. urterako lau hitzaldi aurrikusi ditu, aurretik aipatutako 4 ildoei buruzkoak. Hitzaldien ondoren 'Zeasma: Biharko Zegama' taldeak bertako ekintza proposamenak aztertuko ditu eta 2000. urtearen bukaeran txosten gaurkotu bat ateratzeko asmoa du. Azken finean, talde honen eginkizuna Zegamaren egoera aztertu eta bere etorkizunari begira zein pauso eman behar litezkeen proposatzea baita, hau da, hausnarketa foro bat izatea, alegia.

Erretzeari uzteko doaneko ikastaroa

Udaleko Gizarte Zerbitzuak antolaturik, martxoan erretzeari uzteko doaneko ikastaroa antolatzeko asmoa dago. Ikastaro honek 6 orduko iraupena izango du, astean ordu bat, martxoaren 14tik aurrera. Ikastaroa Kantzerraren Aurkako Elkartearen kargu joango da. Izena emateko epea otsailaren 29 arteko izango da eta Udalean eman beharko da.

Edurne Albizu



Mediku kontsulta berritzen

Udalak dituen asmoak betetzen baldin badira, apirilean hasiko dira medikuaren kontsulta berritzeko lanak. Udalak dagoeneko berritze lanak egiteko proiektuaren baldintzak onartu ditu, eta martxoan, lehiaketa publiko bidez, lanak nork egin erabakiko da.

20 milioiko inbertsioa egingo da mediku kontsulta berritzeko, udalak kopuru ho-

rren erdia ordaindu eta beste erdia erakundeetako laguntzen bidez jasotzea espero du.

Inauteriak

Kultura Batzordea martxoaren 3rako inauteri jaia antolatzen ari da. Azken urteetan bertan behera geratutako ohitura berreskuratu nahi da honenbestez. Albiste hau idazterakoan oraindik zehaztu gabe zeuden arren, herri afaria eta txaranga izango dira egun horretan. Batzordeko kideek aurreratu dutenez, garai bateko inauteriak berreskuratzeko bidean, mozorro txuri eta zatar jatzeko deia egin nahi zaie herritarrei.

Lanak bukatutakoan medikua eta praktikantea, biak pisu berean egongo dira. Biengana joateko itxaron gela bakarra egongo da. Bi zerbitzu hauek duten elkarlana erraztu nahi da honenbestez.

Berritze lanek irauten duten bitartean, mediku kontsulta beste leku batean jarriko dute. Epeak betez gero,

udarekin batera bukatuko dira mediku kontsultako lanak.

Bi urteko gela

Idiazabalgo Herri Eskolak bi urteko neska mutikoentzako gela zabalduko du datorren ikasturtean. Herriko guraso talde batek Udalarari eta Herri Eskolari egindako eskariari erantzunez erabaki da gela hori martxan jartzea. Aurre-matrikulazio epea bukatuta, 2 urteko 12 herritarrek eman dute izena eskolan hasteko. Gela berria eskolako eraikin handian egongo da. Herri Eskolatik jakinarazi denez dagoeneko gela hori prestatzen ari dira.

Xabier Urteaga

Ormaiztegi

Gipuzkoako beste hainbat herritan bezala Ormaiztegin ere bihar, otsailak 26, zuhaitz eguna ospatuko da. Gipuzkoako Foru Aldunditik luzaturiko ekimenari jarraiki gure herriko lurretan 100 zuhaitz inguru aldatuko dira. Lizar, urki, haritz, pago eta gerezi-ondoak izango dira.

Gure herria natur baliabideez inguraturik aurkitzen da. Hain zuzen herriak duen 672 hektareako azaleratik, 516 Ha. zuhaitz basoak baitira. Beste 111 Ha. belardiak, 14 Ha. sastrakadiak eta 2 Ha. laborantza intentsiboak. Gainerako 29 Ha. zoru urbanoa da.

Zuhaitz basoak osatzen

dituzten espezieetan gehien-
goa intsinis pinuak osatzen
du, hain zuzen 452 Ha. har-
tzen ditu. Hostodun zuhai-
tzen artean aipagarriena
atlantiar basoa da 46 Ha.
osatzen ditu.

Nahi duzuen guztioi lerro
hauetatik zuhaitz eguneko
ekimenean parte hartzeko
gonbitea luzatzen zaizue.

Sauna zerbitzua martxan

Udalean jaso diren hainbat
eskari kontuan izanik, kirol-
degian dagoen sauna berriz
ere irekitzea erabaki da. Sau-
na otsailaren 21etik zabalik
dago. Oraingoz, astean bi
egunetz irekitzea erabaki da,
astelehenetan gizonzkoen-

tzako eta astearteetan ema-
kumeentzako. Ordutegia:
arratsaldeko 6etatik 9ak arte.
Dena den, herritarren eskae-
rak kontuan izango dira eta
bidezko ikusiz gero egun
gehiagotan irekitzea ere az-
tertuko litzateke. Zerbitzu
hau erabili edo argibide
gehiago jaso nahi duzuenok
nahikoa duzue udal bulegoe-
tara hurbiltzea.

Odol ateraketa berria

Odol-emaile elkarteak, mar-
txoaren lehen odol ateraketa
berria egingo da, mediku
kontsultegian, 18:00etatik
20:00etara. Lehen aldiz odo-
la ateratzea hurbildu nahi du-
zuenok ere odola emateko
aukera izango duzue. Lehen

ateraketa hori aurrera eraman
ahal izateko mediku zerbi-
tzua nahi duzen guztien es-
kura jarriko da.

Ur zerbitzuen ordainketa

Ur zerbitzuetatik jakinarazi
zaigunez, 1999. urteko 4 hi-
ruhilabeteko ur eta zabor or-
dainagiriak banatu dituzte.
Edozein argibide edo erre-
klamazio egin nahi izanez
gero, 902 30 22 22 telefono-
ra deituz egin ahal izango
duzue. Erreklamazioarako az-
ken eguna martxoaren 15 da.
Aldi berean, borondatez or-
daintzeko azken eguna apiri-
larren 15era bitartekoa dela
jakinarazi nahi da.

Aitziber Murua

Zerain

Endika Alustizaren omeneko VII. bola txapelketa

Endika Alustizaren oroime-
neko VII. bola txapelketa,
igandean, otsailaren 27an,
9:30etik 12:00etara eta
16:30etik 17:30era izango
da, Liztormendi bolalekuan.
Txapelketa honen antolatzaileak
Zeraingo Udala, Kultur
elkartea eta Liztormendi el-
kartea dira. Laguntzaileak
berriak, Ostatu jatetxea, Man-
dioa taberna, Mandioa den-
da, Oatza sagardotegia, Se-
gurako bolariak eta Joxe Tel-
leria S.L. aseguruak. Lehe-



nengo 8 sailkatuek saria
izango dute.

Zuhaitz eguna

Otsailaren 27an, lehenengo
aldiz, Zerainen, zuhaitz egu-
naren inguruko ekitaldia
egingo da. Historian atzera
eginez gero, Zeraingo plaza
garai batean artadia zela
agertzen zaigu, eta horretan
oinarrituta arte landarak
izango dira, igandean 11,30-
etan, herriko plazan landatu-
ko direnak. Plazan orain dau-
den zuhaitzen berraldaketa
egin beharko denerako bidea
egitea da ekintza hau.

Bi zeraindar sarituak

Euskaltzaindiak banatzen
dituen Azkue literatur sa-
rietan, aurtengoan B mai-
lan, Jon Lekuona Sarasola
zeraindarra izan da saria
jaso duenetako bat.

Beasaingo Udaleko
Euskara batzordeak anto-
latutako X. Beasain Idaz-
lehiaketako sariketan B
mailan akzesita jaso du,
Jon Muñoa Errasti zerain-
darrak.

Zorionak biei eta jarrai-
tu horrela idazten eta sa-
riak jasotzen.

Mari Flor Mendizabal

Auto EASO

Ibabe industrialdea, 13
LAZKAO

☎ 943 16 30 15
☎ 606 301 955



VIA

Alpe

MASTER

Elektragaiak
Sukaldeko altzariak

Mariaratz, 4 ☎ 88 86 84 **BEASAIN**

Sahararen alde

Saharako herriaren lagunak ONGak eskatuta eta Udaleko Ongizate batzordearen laguntzaz, gaur, otsailak 25, amaituko da atun lata bilketa kanpaina. Hauek, herriko dendetan jarrita dauden kaxatan utzi behar dira.

Erretzeari uzteko ikastaroa

Minbiziaren aurkako elkartearen gain eta Udalaren laguntzaz. Martxoaren 14an hasita, 6 orduko ikastaroa, astean ordubete, asteazkenean. Izen ematea otsailaren 29ra arte udaletxean.

Marrazketa ikastaroa

Udalak antolatuta eta Joxemari Telleriaren ardurapean. Martxoaren 7an hasita 30 orduko iraupena. Klaseak astearteetan 18:00etatik 20:00etara Kultur etxean. Dagoeneko 19 lagunek eman dute izena. Udalak % 25ean subentzionatuko du ikastaroa. Informazio gehiago udaletxean.



Kartetako finalak Atsedenen

Gaur, otsailak 25, jokatu dira 18:00etatik aurrera, puntu, tute eta museko finalak Atsedeen jubilatuen elkartearen. 3. eta 4. postuak erabaki ondoren, finalak ondorengo lagunek jokatu dituzte: **puntu**, Joakina Alustiza eta Bittori Telleria, Extanix Agirre eta Satur Arizkorretaren kontra. **Tute**, Joxe Urbizu eta Sebastian Garaialde, Eulio Albu eta Ximon Garaialderen aurka. **Muse**, berriz, Patxi Garziandia eta Manuel Huerta alde batetik eta Eulio Albu eta Ximon Garaialde bestetik.

Herri-eskolaren VI. Kultur astea

Zenbait ekitaldi oraindik lotu gabe badaude ere, Laiotz Herri-eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek ondorengo egitaraua antolatu dute martxoaren 7tik 13ra.

Martxoak 7, asteartea: Goizeko **10etan**, Eskolan, Pello Añorga ipuin kontalaria 3. eta 4. ziklokoentzat. **15:00etatik** aurrera, plazan inauterietako mozerro festa.

Martxoak 8, asteazkena: Goizez: Segurako haurren antzerki eta abesti emanaldia, Zegamako eta Barnetegiko haurrentzat, Aterpetxean. **Arratsalde:** Kultur etxean, Enkarni Genuaren txotxongilo emanaldia 2 urtetik 8 urterarteentzat. 3. mailatik gorakoentzat joko didaktikoak.

Martxoak 9, osteguna: **15:00:** Eskolako haurrek gurasoei eskainitako jaialdia Aterpetxean.

Martxoak 10, ostirala: Goizez: Eskolako haur guztiek ingurugiroari buruzko ekintzak burutuko dituzte. **Arratsalde:** 2 urtetik 8ra bitarteko haurrak joko eta jolas desberdinetan arituko dira. **16:30ean:** Plazan, dantzariak, buruhandiak eta abar.

Martxoak 11, larunbata: **10:00etan:** Plazan, eskolako haurren arteko herri-kirolak.



Eskolako ikasleak iazko antzerki emanaldian.

Ondoren hamaiketakoa. **Arratsalde:** Kale animazioa. **22:00etan:** Juan Carlos Irizar pianojolea, Udalaren laguntzaz. 16. diskoaren aurkezpena eginez lehen aldiz Goierri.

Martxoak 12, igandea: Goizez: Eskolarte-ko ibilaldi neurtua Legazpin. **Arratsalde:** Bideo emanaldia Kultur etxean.

Martxoak 13, astelehena: Eskolan pianojole berezi baten emanaldia, haur guztientzat.

Oharra: Bi hitzaldi izango dira herritar guztientzat, asteazkenean eta ostegunean 19:00etan, Kultur etxean. Gaiak hauek izango dira: 'Anorexia eta bulimia' eta 'Gurasoen papera umeen heziketan'. Bakoitzaren eguna zehaztu gabe dago.

Oinarri demokratikoak

2. asteburuz, zenbait herritar baraualdian daude herriko plazan 'Amnistia eta Alde Hemendik' aldarrikatzeko. 4

asteburuz egongo dira; martxoaren 1go astebururarte.

'Euskal Presoak Euskal Herrira' maindirea

Preso eta errefuxiatuen aldeko taldeak herrian zehar, etxez etxe, Euskal Presoak Euskal Herrira maindireen banaketa hasiko du balkoietan jar daitezen. Maindireak dohainik banatuko dira.

Batera-ko konzentrazioa

Otsailaren 25ean, 20:00etan. Hurrengo bilera otsailaren 29an 19:30ean, Kultur etxean.

Hauteskunde mahaiak

Martxoaren 12ko hauteskunde egunean ondorengo herritarrei egokitu zaie mahaietan egotea: 'A' mahaietan, Maria Teresa Alustiza, Juan Migel Esnaola eta Mari Karmen Ezeiza. 'B' mahaietan, Arazeli

Ugalde, Jabier Mendizbal eta Mari Jose Legorburu.

Futbola

Asteburuko emaitzak: **Preferentea:** Beti Onak 1 - 1 Segura. **Jubenilak:** Segura 3 - 0 Beti Onak. **Kadeteak:** Bergara 2 - 1 Aizkorri. **Infantilak:** Aizkorri 8 - 2 Behobia.

Asteburuan etxean: **Preferentea:** Segura-Intxaurren, zapatuan 16:30ean. **Kadeteak:** Aizkorri-Hamaikak Bat, jaiean 11:00etan.

Kirol eskolarra

Mendi irteera: Martxoaren 5ean Tolosatik Laartera, goizeko 8,30etan plazatik irtenda. Ondoren Tolosako inauterietan bueltatxo bat eman go dute.

Joseba Telleria

Lazkaoko Lizarra-Garaziren aurkezpena

Lazkaoko EAJ-PNV, HB, EA, ELA, LAB, Senideak, Amnistiaren Aldeko Batzordea, EHNE, EGI, JARRAI eta Gazte Abertzaleak idatzi bat argitaratu zuten, zeinaren xedea herritar ororengana hurbiltzea zen. Zenbait bilkura egin dituzte jadanik, lehenik partidu politiko ezberdinen artean, eta ondoren, Lizarra-Garaziko adierazpena sinatu zuten beste hainbat gizarte eragilekin. Beraz, euskal arazoari aurre egiteko Lazkaon jada talde iraunkor bat martxan jarri dela esan genezake.


Bake prozesua izaera politikoa duen gatazka politikoa den heinean, konponketa ere derrigorrez politikoa izan behar dela diote. Hori dela eta, talde honek egungo egoera aprobetxatuz, guztien arteko elkarrikeria askea bultzatu nahi du, errespeto osoarekin bakoitzaren ikuspuntua azaldu eta entzunez Euskal Herriaren etorkizuna moldatzeko. Hau da, gizarte demokratiko baten oinarriak bermatuko dituen gizabanako eta kolektiboko errespetutik abiatuta, denon elkarbizitzan lagungarri izan daitezkeen adostasunen kontzientzia hartzeko ahalegina egin nahi dute.

Jaietako egitarauaren azala

2000.urteko San Prudentzioetako egitarauak ere behar du bere azala. Hori dela eta, mende honetan ere mantenduko da lehia-ketaren tradizioa. Bertan, edonork parte hartu dezake eta edozein kolore eta motarako lanak onartuko dira, hala nola, collagea, pintura... Hala ere, lanek ezingo dute 45x65 zm-tako tamaina gainditu.

Epainahaiak martxoaren 31a baino lehen emango du bere erabakia. Saria 30.000 pezetetako izango da, baina eman gabe ere gera daiteke. Martxoaren 27an amaituko da lehikaketa honetan parte hartzeko aukera.

Horretarako, Lizarra-Garazi akordioak proposatzen duen metodologia helburu hori lortzeko ekarpenik egokiena dela deritzote: gatazka-aren izaera politikoa definitu eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatuaz konpondu beharreko oinarritzko arazok azpimarratzen baititu. "Gizarte honek pakean bizi behar du eta gure baitan da-



Tibetarren arazoak eta 99ko eklipsea Kultur Etxean ikusgai

Gaur amaituko da otsailaren 14tik Kutxa Gizarte Ekintzaren Iharduera-k hilabete honetarako antolatutako lehen erakusketa, bigarrena berriz, hastear dago eta martxoaren 10ra arte iraungo du.

Jende Xehearen Istorioak lemapean orain bi aste hasi zen erakusketa hori herrialde tibetarren lehengo eta egungo egoera isladatzen saiatu da. Tibeteko baldintza klimatiko eta geografikoak zirela eta, familien egitura oso garrantzitsua izaten zen. Herrixka nomadetari bezala, nekazaritzako gune txikietan ere seme-alaba ugari dituen familia asko dago. Tibetarrek, ordea, mundutik aldendurik eta modu oso xumean bizi ziren, ia aintzinatean bezala.

Erakusketa honek beste bati emango dio lekua, otsailaren 28an hasiko baita 1999ko Eguzki Eklipse Osoa izenekoa. Miramon Zientziaren Kutxagunea ireki baino lehenago, berau ezagutza zientifikoen hedatzaile den gunea izango denez, zientziari loturik dauden ekintza ezberdinak antolatuko dira. Horien artean 1999ko abuztuaren 11ko eguzki-eklipse osoaren zabalkunde-lana.

Erakusketa honetan eklipse-egunean Arantzadiko Zientzia Elkarteko Astronomia saileko taldeek Hungarian eta Errumanian formato desberdinetan ateratako argazkiak daude ikusgai. Naturak eskaintzen digun fenomeno eta gertakari ikusgarrienetako bati buruzko irudien hautapen zabala eskaintzen da bertan.

Bi ekitaldi Maizpiden

Otsailaren 28an Emeterio Sorazuk hitzaldia emango du Maizpiden gaueko bederatzieta. "Inauteriak Euskal Herriko ohituretan" izango da hitzaldian jorratuko den gaia. Otsailaren 29rako berriz, bertso afaria antolatu dute. Bertara, Joxe Munduate eta Mikel Mendizabal joango da.

go hori horrela izan dadin". Ekimen hau martzen jartzeko, prozesuaren alde lana egingo duten gizabanakoak

behar dira eta horiek aurkitzea da orain talde honen helburua.

Elordi Garcia

Agur Iñaxito

Joan den asteko astelehen goizez izan genuen Iñaxito Aierbe 'Koñaro' ren heriotzaren berri. Hogei urte luze erbestean eman ondoren, jada oso aurreratuta zuen min-

biziak jota itzuli zen etxera duela bost bat hilabete. Astelehen arratsalde, herritar eta lagun ugariz inguraturik, eraman zuten haren gorpua bere jaiotetxetik, Lauztierrekatik,

San Gregorioko "eskoletaraino". Lagun eta ezagun ugari bertaratu zen Iñaxitori azken agurra ematera. Bere heriotzaren protestan antolatuturiko ekintzez beteriko aste-ari igandean eman zitzaion amaiera. Meza nagusiaren ondoren, Lauztierrekan lehenik eta Sakanan ondoren, zabaldu ziren bere errautsekin batean. Bezperan, Iñaxitoren errautsak eta umetatik eraman behar izan zituen maku-luak present zirelarik, omenaldi bero bezain hunkigarria eskaini zitzaion San Gregorioko plazan. Bertan izan ziren herritarrak ezik, erbestean ezagutu zituen lagunak ere. Bere arreba Karmeleren hitzetan zorioneko izan zen Atauna itzuli zelako eta jendeak eskainitako laguntzagatik ere. Halaber, lerro hauez baliatu nahi nuke sendiari doluminak helarazteko.



Ataundarrak bikain kiroletan

Iker Sukiak beste behin harritu gintuen Espainiako Pista Barruko Atletismoko Txapelketan zilarrezko domina lortu ostean. Duela asteburu bi, Donostiako Anoeta belodromoan jokatutxapelketan 18 metro eta 64 zentimetroarainoko jaurtiketa egin zuen, errekor berri bat jarritz. Aurrez ere berea zuen Euskadiko errekorra eta oraingo marka berri hau etengabe gailentzen ari denaren seinale da, dudarik gabe. Gainera, aurki Europako txapelketak jokatuko dira eta Iker bertan parte hartzeko bidean da, horretarako beharrezko den 19 metroetako jaurtiketatik gero eta hurbilago baitago.

Neska alebinak ere denboraldi ezinhobea egiten ari dira areto futboleko. Aitor Etxeberriak entrenatzen duen talde honen oraindik ez du partidurik galdu eta ongi merezitako lehen postuan doaz.

Mutilei dagokienean, maila autonomikoan jokatzen duen Generali taldea sailkapenean goruntz doan heinean, 2. mailako Ataun Bitor Jatetxea eta jubenetako Ataun Zubikoeta taldeak 5. eta 6. Postuetan doaz. Azken talde honen helburua lehen lau postuetan sartzea da, horiek baitira sailkatuko diren bakarrak.

LABURREAN

● San Gregorioko **etxe berria** jada itxura hartzen ari da eta San Martinen ere hasiak dira medikune atzean eraikiko dituzten 15 **etxebizitza adosatu** egiteko lanak. Bestalde, San Martingo kaxkoari ere aurpegia berrituko dion egitasmoa martxan da. Artzubitik hasita hamar etxebizitza eraikiko baitira.

● 2000-2001 ikasturterako Joxemiel Barandiaran eskolan 2 urte betetzear dauden **10 ume** matrikultatuta dira. Ez dago batere gaizki aurreko urte batzuetako kopuruei begiratzuz gero. Datozen urteei begira ere, nahiko esperantzatsu egoteko moduan garela dirudi. "Krisialdiaren" amaiera ote?

Agurtzane Bikuña

Atsedentoki, kiroldegia eta etxez-etxeko laguntza zerbitzua lehiaketara

Atsedentoki jubilatu elkarte, Auzoeta kiroldegia ustiateta eta etxez-etxeko laguntza zerbitzua lehiaketara ateratu Udalak. 4 urteko epean zerbitzu hauek ustiatzeko bete behar diren baldintzak Gipuzkoako Boletín Ofizialean argitaratuko dira. Une horretatik, 26 eguneko epea izango du bere proposamena aurkezteko lehiaketa honetan parte hartu nahi duen orok. Prozedura berbera jarraituko da Udalaren jabego diren eraikuntzak, 17, eta tresneria babestuko dituen poliza estaliko duen aseguru-etxea aukeratzeko ere.

JUAN KAR

- ✱ Zoruen lixatu eta barnizadurak hautsik gabe
- ✱ Parket ezartzeak

☎ 943 73 19 45 - 939 96 28 50
San Inazio, 42-2. ez. LEGAZPI

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24

☎ 943 88 95 83

LAZKAO

Kultur astea

Martxoak 6, astelehena:

15:00etan: Hitzaldia: 'Emakumea eta autoestima', Amaia Vazquezekin, Bikario-etxean.

18:15ean: Arrate Leunda-ekin ipuin-kontaketa, Udal Liburutegian.

Martxoak 7, asteartea:

15:00etan: Inauterietako moztaroen desfilea Iurreko kaleetan.

17:30ean: Gaztetxoaren karoa, Bikario-etxean.

Martxoak 8, asteazkena:

18:00etan: Mahaingurua: 'Adopzioa: egoera desberdina', Bikario-etxean.

Emakume langilearen eguna ospatzeko emakumeen arteko afaria Ataungo Urbi-tarte sagardotegian.

Martxoak 9, osteguna:

17:00etan: Hitzaldia: 'Afektibitatea eta pertsonen arteko harremanak', Jubila-tuen elkarteak.

19:00etan: Diaporama: Joxe Ramon Agirre 'Mar-ron'-en 'Bidaia nire erraia-ara: Nepal', Bikario-etxean.

Martxoak 10, ostirala:

19:00etan: Mahaingurua: 'Gazteak gara, baina non gaude? Jakin dezatela...!', Bi-kario-etxean. 13-25 urteko gazteei zuzendua.

22:30ean: 'Upeletan erronka' bertso, dantza eta trikitri ikuskizuna: Iban Agote, Oier Imaz, Kimetz Larrañaga eta Jon Maia dantzariak; Angel Mari Peñagarikano eta Sebastian Lizaso bertso-

*'Upeletan
erronka'
bertso,
dantza eta
trikitri
ikuskizuna*



lariak eta Ansorregi eta La-rrañaga trikitilariak. Udal pi-lotalekuan. Sarrera 500 pta.

Martxoak 11, larunbata:

9:00etan: Kultur ibilaldia herrian zehar interes artisti-koa duten txokoak ezagutze-ko.

Erakusketak

Uxua Gabarainen akuarelazko 30 margo eta iazko urtean zehar eskulanetako taile-rrean egindako lanen erakusketak egongo dira Bikario-etxean. Orduetgia: astelehe-netik ostiralera 18:00 - 20:00; larunbata eta igandean: 12:00 - 14:00 eta 17:00 - 19:00

11:00etan: Zuhaitz eguna. Herriko gazteek hainbat zuhaitz landara aldatuko di-tuzte herriko plazan.

15:00etan: Mus eta briska txapelketa, Arkupe elkarteak antolatuta, Zezilio-enean.

16:30ean: IV. Joxe Kere-jeta memoriala, bolatokian.

17:30ean: Haurrentzako herri jolasak eta herri-ki-rolak, herriko plazan.

19:00etan: Talo festa, Arkupe elkarteak.

22:30ean: Mikel Urdan-garin, udal pilotalekuan. Sarrera 500 pta.

Uraren inguruko sentsibilizazio kanpaina

Ugaro Herri-eskola Europar Batasuneko Ekoeskola ingurumen proiektuaren barruan sartuta dago. Hiru urteko proiektua da eta aurreko ikas-turtean hondakinen atala lan-du zuten. Aurten, ura gaia lantzen ari dira, uraren gehie-gizko erabilpen okerrak zu-zendu eta ura aurrezteko sen-sibilizazio kanpainarekin.

Adin eta ziklo bakoitzean arlo ezberdinak landuko di-tuzte. Helburuetariko batzuk hauek izango dira: urak eta ibaiak bizitzarako baliabide-ak direla ohartarazi, uraren

erabilera egokia zein izan daitekeen jabetuarazi, gure gorputzak eta landare zein animaliek duten uraren behar-ratz jabetzea, etxeko ura non-dik nora datorren aztertzea, kutsadura kontzeptuaz kontu-ratzen hastea, inguruko ibaien ezaugarriak ezagu-tzea...

'Ura bizia da, zain deza-gun' erakusketa berezia pre-satu dute bertako ikasleek, or-mirudiak, kartelak, poemak... erabiliz. Ura era egokian era-biltzeko aholkuak, ura eta euskal erritoak eta mitologia,



erreka eta ibaien kutsadura, Ozeano Artikoa, euri azidoa-ren ondorioak, legorretarrok urarekin zer moduz konpon-tzen garen, aholkuak, ura zer-gatik den garrantzitsua, ura non dagoen, zertarako erabi-ltzen dugun ura eta berotegi efektua dira erakusketan ai-patzen diren gai nagusiak.

Kanpainari amaiera ema-teko, martxoaren 28an, En-karni Genuaren 'Erreka Mari' txotxongilo emanaldia izango da goizeko 10etan.

Europar Batasunaren diru-laguntza jasotzen dute esko-lakoek, Ekoeskola proiektuan parte hartzeagatik.

Inauteriak

Martxoaren 7an ospatuko di-tuzten inauterietan uraren in-guruko parodia egingo dute ikasleek. Hurrengo alean izango dugu informazio gehiago.

Kronista

GOIERRITARRAN kronika idatziko duen herritar bat be-har da. Interesa duenak dei dezala lehenbailehen 943 889612 telefonora.

Osoko bilkura

Joan zen asteazkenean, hilak 16, Udaltzatzen osoko bilkura egin zen udaletxean, eta bertan, zinegotzi guztien eta alkatearen onespenerekin, 4 mozio onartu ziren.

Irun eta Hondarribian alardea dela eta sortutako arazoez talde feministek sartutakoa izan zen lehenengoa gai-ordenean. Mozio honen arabera, emakume guztiek beste edonoren baldintza berdinetan gizartearen jardura-eremu guztietan parte hartzeko duten eskubidea ezagutu dadin eta berdintasunerako eskubidea eta sexu bereizketagatiko diskriminaziorik ez izateko eskubidea berma daitezen eskatzen du

Zaldibiako Udalak.

Mumia Abu-Jamalen aldeko plataformak heriotz zigorraren kontra aurkeztutako agiria ere aho batez onartu zuen Udaltzatzen.

Aurrera atera ziren beste bi mozioak gizarte eskubideen aldekoa bata, eta hirugarren mundua eta bakearen aldekoa bestea, izan ziren.

Hauteskundeak

Martxoaren 12an Espainiako Hauteskunde Orokorak direla eta, 4 mozioak onartu ziren osoko bilkuran bertan, hauteskunde mahaia osatu zen zozketa bidez. Aurten lehenengo aldiz, hauteskunde-



etako arduradunek hala eskatuta, plenoan aukeratu dira egun horretan lan egingo duten herritarrek.

Hauteskunde hauetarako Euskal Herritarrok taldeak proposatutako abstentzio aktiboaren haritik, 60 bat herritarrek zozketa honetatik kanpo geratzeko borondatea azaldu zioten idatziz alkateari. Zaldibiako Udalak herritar hauen nahia errespetatzeaz gain, ez du hauteskunde hauetan inolaz ere parte hartuko. Hori dela eta, hilaren 16an zozketan ateratako he-

rritarrei egin beharreko lanaren berri emateari uko egin zion, ardura hori hauteskundetako arduradunen esku utziz.

Kontzertua gaur gavean

Gaur ostirala, trikitixa eta perkusio kontzertua izango dugu herriko antzokian. Donato Goienetxe eta Edurne Iturbe bikoteak kultura ezberdinetako instrumentuak uztartuko ditu egungo kultura nahastearen erakusgarri, gaueko 10,15etan.

Iñaki Gurrutxaga - Saroi Jauregi



Belar-bolak

Herriko baserriarrek belar-bolak egiteko erabiltzen duten plastikoa bilduko da hilabete bakoitzeko hirugarren asteartean, herrian horretarako prestatu diren lau guneeetan: Unanita, Biosola eta Saturdi eta Gaintzako bidegurutzeak.



XXV. mus txapelketa azkarra

Joseba Toledo eta Juan Urkia tolosarrek irabazi zuten Zubiburu elkarteak hilaren 19an antolatutako mus txapelketa azkarra. Angiozarko eta Bergarako Unai Ugarte eta Enrike Manzana izan ziren bigarren sailkapenean. Txapelduenei txapelez gain 120.000 pezeta eman zizkieten eta txapeldunordeei 60.000. Sailkapeneko lehen 8 postuetan Juan Etxabe

eta Jexux Mari Beloki izan ziren zaldibitar bakarrak. Guztira 80 bikotek hartu zuten parte lehiaketan, 31 zaldibitarrek. Musean aritu ziren 160 lagun en artean bakarra izan zen emakumezkoa, zizurkildarra bera.

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak
ChristianDior

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

Goierrri Bus

Segurtasun eta kalitatezko
zerbitzua

Tel.: 943 72 52 50
Faxa: 943 72 58 70

Mota guztietako autobusak

19, 29, 55, 60 eta 82 plazatakoak
Literadunak komunarekin





Lantzeko inauteriak martxoaren 4an

Loinazko San Martinen jaieguna izan genuen otsailean, eta martxoan ere ez dugu jai-girorik faltako. Beasain ez da inauterietan tradizioa duen herria, baina izango da martxoaren lehenengo astean inauteriez gozatzeko aukera.

Ostadar dantza-taldeak Lantzeko inauterietan oinarrituta, Nafarroako herri inauterien ohitura zertan datzan erakutsiko digu. Otsailean zehar, Ostadar dantza-taldekoek gain, herriko inauterien zenbait zaletu ikastaro batean aritu dira, bertako dantzak ikasten eta jantziak eta mozorroak prestatzen. Lan honen fruitua, martxoaren 4an, inauterietako larunbatean ikusi ahal izango dugu Beasaingo kaleetan.

Goiz partean, 11etatik 13:00ak bitartean, Lantzeko inauterietan oinarritutako konpartsek alaituko dituzte kaleak. Arratsaldean berri, 6etatik 8etara, erdiguneko kaleetan ibiliko dira.

Jai-giroa eta euskal tradizioa uztarturik ikusteko aukera izango da beraz martxo-

aren 4an.

Bestetik, Txilibutxof taldeak ere haurrentzako ekin-tza batzuk antolatu ditu egun bererako, inauterietako larunbaterako. Arratsaldeko 5etatik aurrera, San Martin plazan, mozorrotzeko tailerra antolatu dute haur guztientzat eta ondoren, egindako mozorroekin jaialdia ospatuko da.

Emakume langilearen eguna

Martxoaren 8a, emakume langilearen eguna ospatzeko asmoz, Emakumezkoen Astea antolatu du Asmube Elkarteak. Hitzaldiak, irtenaldiak, mahainguruak eta beste hainbat ekitaldi prestatu ditu martxoaren 6tik 10era.

Astelehenean, hilak 6, Elenka Atanasoff errusiarrak hitzaldia eskainiko du Asmuberen egoitzan 17:30etan. Hitzaldiaren gaia 'Berezko betebeharren utzikeria emakumearen depresio eta estres-faktoreen eragile moduan'.

Mendiko Argazki Lehiaketa

Argizpi Argazkizale Elkar-teak, Beasaingo Udalaren babespean, Mendiko Argazki Lehiaketa-Igartza Saria-Beasain 2000 antolatu dute.

Lehiaketa honetan, lanbidez argazkilariak ez diren zale-tuek bakarrik har dezakete parte eta gaia mendia izango da.

Lanak, zuri-beltzean edo koloretan egin behar dira eta ezin dira alde zuzenetik beste lehiaketa batean saritutako argazkiak aurkeztu.

Askatasun osoa dute bai teknika aldetik zein argazkia aurkezteko erari dagokionean baina ezingo dira argazki digitalak izan. Argazkiak gehienez ere 30 x 40 cmkoak izango dira eta kartoi sendo batean aurkeztu behar dira. Honen atzealdean, izenburua, datu pertsonalak, telefonoa eta partehartzailea zein elkartetakoa den adierazi behar da.

Argazkiak jasotzeko azken eguna martxoaren 10a izango da. Aizkorri mendizale Elkar-tea edo Argizpi Argazkizale El-kartera bidal daitezke lanak.

Lehenengo sarituak, 20.000 pezeta jasoko ditu, bigarrenak 15.000 eta hirugarrenak 10.000 pezeta.

Elkarteko edo herriko argazki onenak ere 10.000 pezetako sari berezia jasoko du.

Hurrengo egunean irtenal-dia egingo dute Asmubeko-ek. Donostiako La Perlako termaz gozatzeko aukera izango dute. Arratsaldean, San Telmo Museoa ikustera joango dira.

Asteazkenean, hilak, 8, Igartza bisitatzera joango di-ra.

Ostegunean, Asmube El-karteko kideen artean kafe-tertulia izango da Asmubeko egoitzan 17:00etan.

Astean zehar egindako ekintzei behar bezalako amaiera emateko, ostiralean afaria egingo dute Asmube-koek Lierniko Mujika jate-txean. Ondoren dantzaldia izango da. Dantzaldian zehar opariak banatuko dira mahai-kide guztien artean.

Jon Erguin 2. Espainiako Neguko Triatloi txapelketan

Jon Erguin, Antzizar Triat-loiko partaideak bigarren postua lortu zuen Reinosan ospatutako Espainiako Ne-guko Triatloi txapelketan, ju-

nior kategorian. Martxoaren 4an Jakan ospatuko den Munduko txapelketarako au-keratua izan da Junior-Elite mailan. Denboraldi bikaina egiten ari da era berean irau-penezko eskian, Tolosako Uztargi taldearekin. Euska-diko txapelketan, bigarren sailkatu da, klasiko teknikan eta Eusko Jaurlaritzako pro-ban, lehenengo.

Loinatz Txirrindularitza Elkar-tearen proiektua

Beasaingo Loinatz txirrindu-laritza Elkar-teak, proiektu berria jarri du martxan Elkar-tea berritzeko asmoz. Sukal-daritza Elkar-te bihurtuko du-te era berean, ahalik eta jen-de gehienak parte har dezan bertan. Proiektu hau aurrera eramateko lokal berriak har-tuko dituzte. Elkar-te berri honetan parte hartzeko inte-resa izango bazenu, beraie-kin harremanetan jarri beste-rik ez duzu.

Nekane Altuna

Begoña Lasagabaster (EA):

Estatutuko Legebiltzarran lau urtez parlamentu lanetan aritu ondoren, Begoña Lasagabaster Eusko Alkartasunaren Gipuzkoako zerrendaburua izendatua izan da datorren hauteskundeetarako.

"Euskal gizartearen ahotsa, erabakiak hartzen dituzten erakunde guztietara eramane behar dugu"

Nola jasotzen duzu berriro ere erronka hau?

Ilusio eta ardura handiz, Eusko Alkartasunarengan eta sozialdemokrazian oinarritutako aldarrikapenetan bere konfidantza jarri duten gipuzkoar hiritarren ordezkaritza jasotezea izango baita nire lana. Guretzat, tamalez, oraindik euskaldunoi dagozkigun erabakiak hartzen diren lekuetako batetan baldin bada ere.



Zer proposatzen du EAK zeuk salatzen duzun egoera hori alda dadin?

Eusko Alkartasunak garbi asko dugu Euskal Herria nazio bat dela eta hari bakarrik dagokiola bere antolmentu, eredu ekonomiko, sozial eta, azken finean, bere etorkizunarekin zerikusia dituzten erabakiak hartzea. Hortaz, gure lehen aldarrikapen politikoa, EA sortu zenetik, Euskal Herriaren autodeterminazioa eskatzea izan da. Handik aurrera, eta asmo hau gauzatzen den bitartean, beharrezkoa dugu euskaldunon ahotsa leku guztietara eramane eta entzungai izatea. Batez ere Euskal Herriari dagozkion tresnak beste

erakundeen eskuetan daudenean ere, Madril, Paris edo Bruselasetan.

Zeintzuk lirateke tresna horiek?

Gaur egun eta Hego Euskal Herriari dagokionez, Euskal Erkidego Autonomoan Autonomi Estatutoa eta Nafarroan Amejoramentua ditugu. Bere garaian eta egoera berezi hartan Estatua eta Hegoaldeko euskal lurraldeen artean lortutako hitzarmena izan zen oinarritzeko baliabide batzuk finkatzeko eta haien gainean Euskal Herria politiko, sozial eta ekonomikoki eraikitzeko.

Baina testu haiek lege organiko izaera eduki arren, Gernikako Estatuaren

kasuan Autonomi Erkidegoko euskaldun gehiengo berezi baten berrezpene alegia, Estatutak ez ditu bete lege hauek sistematikoki azkeneko hogeitun urtetan eta, ondorioz bere edukina gutxitu egin du. Beraz, lege iruzurra egin du.

Zuk uste euskaldunok uruzur honetaz jabetzen garela?

Eusko Alkartasunatik Gernikako Estatutua gaur egun ez dela nahikoa esaten dugunean, zera azpimarratu nahi dugu: duela hogeitun urte euskal Autogobernua martxan jarritako hitzarmena debaluatu egin dela, bete gaber geratu eta erlati-

bizatua izan dela alde batetik, Espainiako gobernuarena hain zuzen ere. Ez ditugu lege hauen arabera dagozkigun eskubide eta erantzukizun guztiak, ez eta gaurko testuinguru politiko, sozial eta ekonomikoak eskatzen dizkigunak ere.

Ez ahaztu oraindik hainbat transferentzia falta ditugula, besteak beste, Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoa, lanerako politika aktiboak, baita zientzi ikerketa eta garapen teknologikoa ere.

Gai hauek guztiak dira gero hiritarren eguneroko bizitzan eragina dutenak. Besteak beste, baldintza berdinetan lana, etxea eta gizarte-babesa eskuratzeko. Beraz, euskaldunok jakin badakite estatutuaren lazarriak zeintzuk diren.

Orduan lan sakona egin beharko duzu datozen lau urteetan...

Lan mardula da, bai, baina baita euskal gizarteak behin eta berriro eskatzen digun betebeharra ere. Hortaz, gure erantzukizun politikotik, entzun egin behar dugu eta erakunde bakoitzera eramane. Horrela egin dugu Eusko Alkartasunatik euskaldunok eskatutako bakoitzean eta hala egingo aurrerantzean ere bere konfidantza gurekin dagoen heinean, gure helburua Euskal Herri aske, baketsu, aberats eta gure inguruko herriei lagunkide lortzea izan baita. Baina horretarako beharrezkoa dugu gure gizartearen normalkuntza eta garapene lortzea.

Donostia Hiria pop-rock lehiaketa irabazi zuen iaz Erga Omnes Ordiziako musika taldeak lehenengo diskoa kaleratu du

Ordiziako Erga Omnes musika taldeak lehenengo diskoa kaleratu berria du. 1999ko abuztuan Donostia Hiria pop-rock lehiaketa irabazi zuen eta plazaratutako diskoa izan dute saritzat. 4 abestik osatzen dute disko txikia. Ingelese abesten dute ordiziarrek.

Erga Omnes taldea hiru ordiziarrek osatzen dute: Xabi Lopez, bateria; Iñaki Munduate baxua; eta Joseba Basarte gitarra eta ahotsa. Donostiako pop-rock lehiaketa irabazi zuten iaz eta jaso berria dute saria: 21 minutuko diskoa kaleratu dute, sariak baldintza hori baitzuen. Lau abesti biltzen ditu. Batez ere promozio lanerako erabiliko dute diskoa,



'Erga Omnes' latinez da. Itzulpen literarioak ez dauka. Legegintzan erabiltzen da eta denek aplikatzen zaien legea edo esan nahi du, baina esanahiagatik ez zuten aukeratu izena, izena bera gustatzen zitzaielako baizik.

diskografia eta irrati ezberdinetara bidaliz. Dena den, ale batzuk salgai dauzkate Ordiziako Sugaar tabernan eta Baga Biga Kulturgaiak dendan.

Pop eta rock musika estiloen arteko nahasketa egiten dute ordiziarrek, Europako

eta Amerikako musikaren eraginarekin. *"Musika ezberdina da. Jendeak ez zuen espero horrelako musika entzutea. Hala ere jendea kontzertuetan gustora egoten dela uste dugu"*, azaldu digu Joseba Basartek.

Ingelese

Ingelese kantatzen dute. *"Duela zortzi bat urte sortu zen taldea. Estatubatuar bat etorri zen eta gurekin jotzen hasi zen. Hura ingelesez kantatzen hasi zen eta horrela gelditu da. Fonetika aldetik musika mota honekin hobeto gelditzen da ingelesa. Noizean behin pentsatu izan*

dugu euskaraz edo gaztelera kantatzen hastea, baina ohituta gaude ingelesarekin eta ez dugu barneratzen", dio abeslariak.

Euskal Herritik Espainiara eta Europara zabaldu nahi dute beraien musika, Euskal Herrian leku asko eta askotan kontzertuak eskainiak baitituzte 8 urte hauetan zehar. Taldea dena den, ez dago momenturik onenean: hiru taldekideetatik bi kanpoan baitaude ikasketak direla medio. Uda partean serioago heldu nahi diote musikari.

Puntako kolaboratzaileak

Aurretik bi maketa zituzten grabatuta baina disko hau grabatzea serioagoa izan omen da. Angel Katarainen Azkarateko estudioetan grabatu dute eta esperientzia oso polita bizi izan omen dute. Luis Kaminok perkusio doinua jarri du, Pello Irizar beasaindarrak teklatura, Pello Ramirez ordiziarrek txeloa eta Raul Salazarrek sintetizadorea. Kontzertuetan ere Raul Salazar eta Luis Kaminoren kolaborazioa izaten dute sarritan.

Donostiako lehiaketa

Maketak aurkeztu zituzten lehiaketara. 9 talde aukeratu zituzten eta zuzeneko 3 kontzertu eman zituzten orduan. Hortik 3 finalista aukeratu zituzten eta orduan ere kontzertua eman zuten. Garaile ordiziarrek izan ziren.

Ez zuten espero irabaztea, aurreko urteetan irabazi zuten taldeek oso musika ezberdina jotzen baitzuten. 'La oreja de Van Gogh' taldeak lehiaketa hau irabazi zuen duela hiru urte.

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:

Lanegunetan:

☎ 943 16 21 92

Larunbatetan:

10:00 - 12:00

Altzagako Udaletxean



ALTZAGA

Mikel Telleria zegamar pilotua, Euskadiko igoeretako txapeldun 1 mailan "Iaz barruko har txiki hori piztu zitzaidan eta har hori handitzen joan da"

Mikel Telleria zegamar pilotuak Euskadiko igoera txapelketa irabazi zuen iaz bere mailan. Citroen AX autoarekin parte hartu zuen. Aurtengorako auto handia ekarri du, Ford Sierra cosworth-a. Iazkoak 108 zaldi bazituen berriak 330 ditu.

Hasieran rallyak bakarrik egiteko asmoa zuten baina igoerak egiten hasi eta azkenarako batez ere igoerak egin dituzte. Euskal Herri mailako igoeretan ibili dira, 1. mailan. 5 maila daude eta 1-a da baxuena, 1400 cm³-ko motorreraino. "Hau da merkeena eta autoak arazorik gutxiena ematen dituena. Noiz eta auto handiagoa den, arazo gehiago ematen ditu. AXarekin lasterketa batean kanbioa blokeatuta geratu nintzen, ez dugu beste arazorik izan", dio Mikelek.

Denboraldiko lehen lasterketan ez zuten parte hartu, baina, "bigarren lasterketan eta azkenekoan bigarren postuan bukatu genuen eta beste guztietan gure mailan irabazi. Sailkapen orokorrean auto guztiak kontuan hartuta 5. postuan bukatu genuen. Lehenengo Zabaleta barketarekin, 2. Garcia, 3. Erbiti, 4. Martinez eta 5. gu. Gu esaten dut, nahiz eta autoa eramaten duena ni izan, atzetik jende koadrila handia dudalako laguntzen. Bakarrik ibiltzeko ez dut ez astirik ez eta dirurik ere".



Nahiz eta autoa eramaten duena Mikel Telleria izan, atzetik jende koadrila handia du laguntzen. Inor ahazu ezean hauek dira: Jon, Lorenzo, Txikito, Joakin, Caballo, Bernardo, Patxi, Karlos, Dani, Jorge.... Babesleak, berriz: Koiote, Olabe kaldereria, Mendiguren kafetegia, Euroson, Fina olioak, AH diseinuak, San Ignacio desguazeak, Mujika frutak eta Ibai-alde karrozeria.

Igoeratan gidariek ez dute kopilotorik izaten. Baina Rallyetan Alejandro Gurrutxaga azpeitiarra izan du kopiloto lanetan. Lasterketa batean Lesakako neska bat eramane zuen kopiloto bezala.

Aurten auto berria

Aurten ekarri duen autoarekin 5 mailan lehiatuko du. Forda indarrez aurrekoaren hirukoitza izateaz gain, atzean du trakzioa. Honek kezka sortzen dio zegamarrari: "Orain berrira ohitzen dut lana. Denboraldi erdirarte lasai-lasai hartu beharko dut, bestela auto honi ikutu bat eginez gero akabo urteko aurrekontua".

Aurten denetik egiteko asmoa dute bai igoerak eta baita rallyak ere. Gabirian parte hartuko dute, baina pazientziarekin. Auto berria errepide horretarako luzea dela dio Telleriak, "eskurik hartu gabe daukat eta denbora behar dut eskua hartzeko. Gero denboraldi erditik aurrera puntan ibiltzeko asmoa dut".

Entrenatzeko arazoak

Hemen ez dago entrenatzeko lekurik. Rallyetan lehenengo kaleko kotxearekin behin pasatzen dira oharrak hartuz, gero beste behin edo bi aldiz pasatzen dira ohar horiek zuzenduz. "Errepidea irekita egoten da eta ez dago norberak nahi lukeen bezala ibiltzerik eta bira batzuk ematen ditugu kurbak nola hartu, non frenatu eta horrelakoak ikusteko". Igoeretan 4-5 aldiz pasatzen dira kaleko kotxearekin lasai-lasai bidea nolakoa den ikusteko.

Auto gidari izateko zailtasun handienaz galdetzean, auto ona eta nahikoa diru izatea erantzun digu Mikelek. "Gidatzea ere zaila da, baina makina bat izan edo beste bat izan diferentzia handia dago".

Ibilbide luzea

Hasieran R-8 zahar bat hartu eta autokros piratetan parte hartuz ibili zen zegamarra. Gero R-5 batekin eta esku

piska bat hartu zuenengan zirkuituetan lehiatzen hasi zen. Hor 3 urte egin zituen, baina beti aurrekontuz gaizki ibiltzen ziren. "Eta aurrekontu exkaxa duzunean askotan beldurrarengatik ez dituzu egingo zenituzkeen gauzak egiten. Zirkuituetan lasterketak egiteko dirua behar da, dirurik ez baduzu jai duzu. 4-5 urte korritu gabe egon naiz, baina bai zirkuituetan baita rallyetan laguntzen ibili naiz. Iaz berriro barruko har txiki hori piztu zitzaidan eta nahiko ondo atera zitzaidanez har hori handitzen joan da".

Telleriak dio askoz arriskutsuagoa dela errepidean azkar ibiltzea lasterketa batean ibiltzea baino. "Hala errepidean nahiko bizkor ibiltzen naiz. Errepidean beste auto asko, txirrindulariak, oinezkoak ibiltzen dira eta horiek denek ere eskubide berdina dute. Mezu hori zabaltu beharra dago, batez ere gazteentzat, azkar ibiltzeko lasterketetan parte hartzeko eta errepidean lasaia ibiltzeko".

Zaletasun handia

Euskal Herrian abiadurarako zaletasun handia dago. "Beti izan da, baina orain arte inoiz ez da hain gertutik jarraitu kirol hau. Zegaman beti egon da zaletasuna baina iazko emaitzak ikusita giroa asko piztu da. Lasterketetara dextente jende joan da eta gainera laguntzeko prest dago jendea eta hori eskeretzkoa da", bukatu du Telleriak.



Gabiriako II. rally sprinta otsailaren 27an

Iazkoa oso ondo atera zitzaienez, eguraldi ona egin zuen eta jende asko bildu zen, aurtentzen ere antolatzea erabaki dute. Azpeitiako Lagun-arteak eskuderiak antolatzen du proba Gabiriako gazte batzuen laguntzaz. Lagun-arteako Joxe Antonio Araneta eta Gabiriako Lontxo Ormazabalek eman digute lasterketa-aren berri.

Proba iazkoaren berdina izango da, bai ibilbide, ordutegi eta xehetasun guztietan. Aldatu den bakarra diru-sari handiagoak emango dituztela aurtengoan, 750.000 pezetan. Arratsaldeko 3etan aterako da lehen autoa Gabiriako Korta erretegitik Legazpiko Moxorrora bidean, ordu bete beranduago Legazpitik Gabirira bidean eta ordubetero beste joan etorri bana egingo dute. Autoak minutuero abiatuko dira.

Sarrera 1.000 pezetan izango da. Errepideko Diputazioarena denez ezin duten inor derigortu sarrera ordaintzera. Baina beharrezko laguntza bat da hau beraientzat, bestela ezinezkoa izango baitzen probak antolatzea.

Partehartzaileak iazko antzera edo gehiago izango dira. Iaz 40 auto izan ziren eta antolatzaileen ustez hori da zenbaki ideala.

Hortik gora ordutegiak ondo betetzeko arazak hasi baitaitezke. *"Baina aurtentzen 17 gidari berri hasi behar dira rally denboraldian eta horietako gehienek Gabirian izan nahiko dute"*, diote antolatzaileek.

Aurtentzen Goierriko beste bi proba antolatuko dituzte Lagun-arteak, biak ere Beasaingo Ikastolarekin elkarlanean. Lehenengoa ekainean izango da Arriarandik, Garindik, Mandubira. Bestea, abenduan, Erauskineko igotza izango da.

Rally sprint-a orain arte ez zegoen katalogatuta. Rallya egiteko gutxienez bi tramo eskatzen dituzte eta igotza izateko bakarra eta goraka izan behar da. *"Horregatik jarri genuen Rally sprinta eta orain ari dira arautzen, Rallyen antzeko arauak izango dituzte baina zirkuitu itxia denez eta errepidera ateratzen ez direnez, prototipoei parte hartzen utziko zaie"*, dio Joxe Antonio Aranetak.

Orain arte beraien lasterketak (Azpeitiko lasterketak, Urbasako igotza, Nafarroan rallyren bat...) antolatu dituzte Lagun-arteak, baina Beasaingo ikastolarekin elkarlanean hasi ziren eta ondoren Gabiriakoa atera zenez hauek elkarlanean antolatzen dituzte.

LABURREAN



Aitor Garmendia

Iazko denboraldia ahazteko modukoa izan bazuen ere, gogor hasi du aurtengo Itsasondoko txirrindulariak. Andaluziako itzulia 3. postuan bukatu zuen. Bere espezialitatea den erlojuaren aurkako probarik gabeko lasterketa batean lortzeak duen meritua-ekin.



Iker Sukia

Otsailaren 12an Donostian jokatu ziren Espainiako pista estaliko txapelketetan zilarrezko domina lortu zuen pisu jaurtiketan Iker Sukia ataundarrak. 18,64 metrora jaurti zuen bola. Denboraldiko jaurtiketarik onena eta Euskadiko marka berria egin zuen ataundarrak.

Iñausti
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 ZbA. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

ARRIETA

*Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!*

JATETXEA

☎ 943 88 00 02 **OLABERRIA**

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

ZINEA

GOIENIZ:

Martxoak 2, 'Adar bakar' (Koldo Almandoz) laburmetraia eta 'Cuento de otoño', 21:00etan, Usurbe Antzokian.

BEASAIN:

'Rodaran cabezas'. Ostirala 25: 22:15
Larunbata 26: 19:30 - 22:15
Igandea 27: 17:00 - 19:30 - 22:15
Astelehena 28: 19:30 - 22:15

ORDIZIA:

'Todo sobre mi madre'. Ostirala 25: 22:15
Igandea 27: 19:30 - 22:15
Astelehena 28: 19:30
'Bowfinger, el picaro'. Larunbata 26: 19:30 - 22:15
Igandea 27: 16:45

'Cuento de otoño'

Eric Rohmer
(Frantzia, 1998)

Magalik, 45 urteko ama alargunak, esana: "Bai, gizon bat maite dut, baina hainbeste baldintza eskatzen ditudanez, ez dut uste beteko dituenik; gainera, haren gustukoa ez naizelakoa nago". Magali bakarrik bizi da, Rodano eskualdean bere mahatsondoak arretaz zaintzen, beretzat egokia izango den gizonaren zain, itxaropen handirik gabe, ordea. Ibaia- ren beste aldetik, Isabelle emakume heldua, ezkondua eta zoriontsua, dirudienek, bere lagunaren bakardadeari irtenbidea ematen saiatuko da. Maurice Scherrer maisu zaharrak, zinezaleontzat Eric Rohmer izen handi eta mirestuararekin lotzen denak, lau urtaroei eskainitako saila burutu du istoriko honekin.

musika

BEASAIN:

Martxoak 9, Musiketan: 'Wrigley Sister', gaueko 9etan, Usurbe Antzokian. Sarrerak 1.000 pezetan.

OLABERRIA:

Martxoak 11, Mikel Ur-dangarin. 22:30ean, pilotalekuan.

ORDIZIA:

Otsailak 25 Festa afrikarra Jim Jim taldearekin, Beti-Alai pilotalekuan, 22:30ean.

Otsailak 26, Estorbo, El corazon del sapo, Potrotaino eta Etsaiak, Beti-Alai pilotalekuan, 23:00etan. Sarrerak: aurrez 1.000 pezeta; bertan 1.200.

ZALDIBIA:

Otsailak 25 Donato Goienetxe, perkusioa, eta Edurne Iturbe trikitria, Antzokian, 22:15ean.

antzerkia

ORDIZIA:

Martxoak 10, Juan Tamarizen 'Magia Potagia', 22:15ean. Herri Antzokian. (Gaztelera).

ikastaroak

BEASAIN:

Otsailak 29, Euskal kanta ikastaroa AEK-k antolatutik. 19:00etatik 21:00etara. Ikastaroaren prezioa: 500 pezeta. Izen emateak: 943 889340 telefonoan.

dantza-bertso

OLABERRIA:

Martxoak 10, Upeletan erronka bertso, dantza eta trikitri ikuskizuna. 22:30ean, pilotalekuan.

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

LORADENDIA

Martxoaren
1etik aurrera
berriro ere

ZABALIK

Amaiares eskutik

*Ezteiak, zentroak,
elizkizunetarako koroak,
lore lehorrak, balkoiak...*

Zaldizurreta 3 behe, Beasain ☎ 943 888149

INIAUSTI

KARROZERIA

N-1 errepidea, lurre auzoa
☎ 943 88 43 01 OLABERRIA

MUJIK

BEASAIN ☎ 943 88 74 00

erakusketak

BEASAIN:

Otsailaren 27ra arte, Karlos Irazu Muñoaren erakusketa, Usurbe Antzokian.

Martxoaren 10era arte, Errenteriako Joakin Vararen argazki erakusketa, Aterpe tabernan.

Martxoaren 3tik 12ra, Iñaki Ardeo Rubio margolariaren pintura erakusketa.

ORDIZIA:

Otsailaren 27ra arte, zezen-motiboen erakusketa, Enrique Muñozen eskutik, Barrenan: jantziak, eskulturak, kartelak...

Martxoaren 8ra arte, 'Non dago zure laranja erdia' erakusketa, Barrenan.

Martxoaren 3tik 26ra, Jean Loup Bezosen pintura erakusketa, Barrenan.

hitzaldiak

BEASAIN

Martxoak 6, Elenka Atanasoff errusiarraren hitzaldia. Gaia: 'Berezko betebeharren utzikeria emakumearen depresio eta estres-faktoreen eragile moduan'. 17:30etan, Asmuben.

OLABERRIA:

Martxoak 6, 'Emakumea eta autoestima', Amaia Vazquezekin. Bikario-etxean, 15:00etan.

Martxoak 8, 'Adopzioa: egoera desberdinak' mahaingurua, Bikario-etxean, 18:00etan.

ORDIZIA:

Otsailak 26, Chus Congilekin drogomenpekotasunari buruzko hitzaldi-eztabaida, 17:00etan, Gaztetxean.

SEGURA:

Martxoak 2, Bidezko merkataritzari buruzko hitzaldia, Kultur etxean, 19:00etan. Hizlaria: Iban Narbaiza (Caritaseko bidezko merkataritzaren arduraduna).

mendi-irteerak

Beasaingo mendizaleak:

Otsailak 27, Eskalada ikastaroa.

Gerriko ikerlan-sariketa

Bere bidea eta bere historia duen ikerlan-sariketa da. Zortzi ediziotan aurkeztu eta saritutako ikerlanekin 15 liburu argitaratuak dituzte.

Bederatzigarren edizio-ko deialdia 1999ko martxoan kaleratu zen. Gogorazi beharra dago, martxoaren 17an amaitzen dela IX. edizioa ikerlanak aurkezteko epea. Beste informaziorik behar baldin baduzue, deitu 943-16 02 82 telefonora (Mari Joxe).

Martxoak 5, Inauteriak Uzturre.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Urbizu
(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 88 02 32.

Otsailak 26-27: Urbizu
(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 88 02 32.

Martxoak 4-5: Arriola
(Plaza Nagusia - Ordizia) 943 88 06 28.

VI. Kimetz ipuin lehiaketa


Ordiziako Kimetz Kultur eta Gizarte taldeak VI. kontaketa lehiaketako oinarriak kaleratu ditu. 18 urtetik gorako edonork har dezake parte bertan. Gaia libreza izango da. Gutxienez 5 eta gehienez 10 orrikoak izango dira lanak. Euskaraz nahiz gaztelaz aurkez daitezke lanak. Sexismorik gabeko hizkera erabiltzea kontuan hartuko da. Erabakia ekainean emango da. Lanak apirilaren 30a baino lehen bidali behar dira Ordiziako Barrena Kultur etxera (Nikolas Lekuona enparantza, z/g).

Bi lehen sari banatuko dira, bata euskaraz eta bestea gaztelaz. Irabazle bakoitzari 100.000 pezeta emango zaizkio. Akzesit bat ere egongo da, 25.000 pezetakoa, emakumezkoak idatzitako kontaketa onenarentzat.

SAN BENITO IKASTOLA
LAZKAOKO
Hautzaindegia-ludoteka
Zabalik urte osoan zehar:
* **Hautzaindegia:** 7:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 7:30etik 14:30era.
* **Jantokia:** 7:00etatik 9:00etara eta 12:00etatik 14:30era (haur eskolarizatuak)
* **Hautzaindegia-ludoteka:** 16:30etik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
* **Kangurak:** Ostiral eta larunbatetan 20:00etatik aurrera.
☎ 943 88 08 00 - 626 91 80 76 ☎

URBITARTE

sagardotegia



- Txotxetik irekita
- Eguerdi eta gauean irekita
- Eguerdietan hobe aurrez deitzea

Erreserba telefonoa:
943 18 01 19

Ergoiena Auzoa ATAUN

IKASTEK AKADEMIA

KALITEA ETA PROFESIONALTASUNA

- ✓ Lehen eta bigarren hezkuntza
- ✓ Unibertsitate maila
- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Marrazketa teknika
- ✓ Larunbatetan klaseak

Hezkuntzako profesionalak goierritarren zerbitzuan

☎ 943 16 01 20 Joan Iturrilalde, 5 BEASAIN

SEGURA
IRRATIA
F.M. 89.2
EGUNEKO
24 ORDUAK
ZUREKIN

GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Etxebizitzak

salgai

➡ Etxebizitza salgai Zegaman, baratza eta txabolarekin. 943886834.

➡ Pisu salgai Beasainen. Erdi mobleztatua. Egoera onean eta prezio interesgarria. Garajea aukeran. 943888318.

➡ Seguran etxe adosatua salgai. 153 m². Lorategia eta garajearekin. 943-881550.

➡ Jatetxea, taberna eta bi pisu salgai, Altsasun. 4.000 m²ko lursailarekin. 948563512. Gaez.

➡ Etxebizitza salgai Beasainen: 2 logela, egongela, sukaldea, bainua, terraza eta trastalekua. 60 m². 656721266.

➡ 3 logelako etxebizitza salgai Zegamako San Bartolome auzoan. Altzariekin nahiz altzaririk gabe. 943801788.

➡ Etxea salgai Lazkao. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, bi balkoi, aluminiozko leiho berriak, gasezko berogailua etxe guztian. 943884096.

Lokalak

errentan

➡ 130 m²ko lokala alokatzen da. Almazan bezala erabiltzeko egokia. Hileko 48.000 pezeta. 616-411142.

Animaliak

salgai

➡ Husky siberiarra eskaintzen da. Urtebetekoa eta etxean hezitakoa. 656745299.

➡ Urte eta erdiko aharia salgai. 943885102.

➡ Boxer arrazako txakurkumeak salgai, pedegreearekin. 696057346.

➡ Euskal ponnyak salgai. 943160919.

opari

➡ 2 artzain txakur opari. Hilabete ingurukoak. Harrak. Norberak txertatu beharko ditu. 943885792.

lagun bila

➡ Dar naiz, cocker beltz eta gorria. Neska baten bila nabil. Nahi baduzu deitu: 943 889690

Ibilgailuak

salgai

➡ Renault 21 autoa salgai, SS-AN. 943 653786.

➡ Opel Kadett GT-a salgai. Gorria. Extrekin. Ongi zaindua, SS-AF. Gaez deitu, 943-161941. Joseba.

➡ Enduro-ko Kawasaki KDX 125 cc. motorra salgai. SS-AN. 92. urtekoa. Egoera oso onean. 656 727300 - 943882907. Ibon

➡ Opel Corsa GSI beltza salgai. 943881802.

➡ Suzuki Address modeloko scuter motorra salgai. Matrikulatua. Erabili gabea (zozketa batean egokitua). Prezio interesgarria. 943187162.

Bestelakoak

salgai

➡ Borsini markako akordeoia salgai. Ia berria. 943801433.

➡ Intxaur landareak salgai. 943 80 13 79.

➡ Alessio markako 14"ko llantak salgai. Oso ongi zainduak, ia berria, 6 hilabetekoak. 943887458. Lan orduetan deitu.

➡ Tabernetarako egokia den hozkailua eta banaketan erabiltzeko tankea, 280 litrokoa, salgai. 943008023.

➡ Berogailuaren akumuladoa salgai. Berria. Egoera onean. 943887146.

➡ Eskiak, makilak eta botak salgai. Oso ongi zainduak. Boten zenbakia: 44^{1/2}. 619749637.

➡ Olivetti idaz makina elektronikoa salgai. 943882278.

erosi

➡ Bigarren eskuko faxa erosiko nuke. 943 161476.



Langai
Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

ELEKTRONIKOA

Donostian. Erref.: 27880/6

MAKINAKO LANGILEA

Hernanin. Erref.: 29226/5

AROTZ LAGUNTZAILEA

Tolosan. Erref.: 29256/2

TORNEROA

Urnietan. Erref.: 28108/5

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Goierriko Herrien Ekintza
943 884 401

Pako Murgiondo:

74 urte, zegamarra

Baso lanetan ospetsua



Basoan lanean ibilitakoa da Pako Murgiondo. Arbolak moztu, arbolak aldatu, egurra jaitsi... ospetsua izan zen mendi-lanetan Pako Murgiondo eta bere koadrila. Etxean mintegiak edo biberokak ere bazituen Pakok. Barietate handia edukitzen zuen. Intsinisa, Iarizioa, izeia.... Dozenaka klae izaten zituen.

Trontzarekin eta aizkoarekin ebakitzen zituzten arbolak. Geroago azaldu zen motozerra. "Motozerra azaldu zenean aizkoarekin gutxi. Aurrerapen handia izan zen motozerra", esan digu.

Lanik txarrena egurrak kamioia kargatzea izaten zen. "Bizkarra erabat minduta gelditzen zitzaigun. Kamioi-karga izaten zen txarrena. Presaka egin behar, bizkarrean edo bueltaka".

Koadrila ospetsua

Altzaniako Partzonerian, Zerainen, Araban, Urbasan, Donostian... denean ibilitakoa da. Ospetsua zen Pakoren koadrila. "Zerainen lanean nembilela, Andoaingo Mendikotek Donostiara eraman ninduen. Hiru egunerako eraman, baina hilabete pasatu nuen. Egur handiak bota behar ziren. Hiru zerra bantuen baina haiek ez zuten balio, handiagoa behar zen. Handiago bat Alemaniatic ekarri zidaten. 30 bat kilotik gora pisatzen zituen gasolina eta guzti. Guardia zibilak begira zirela, Igeldon montatu

nuen. Berehala arrankatu zuen. Poz ikaragarria hartu nuen", dio. Guardia Zibilaren koartelaren ondo-ondoan enbor lodi-lodia zuen gaztainondoa zegoen, igartuta zegoen. "Aproba bezala, botatzeko esan zidaten, 1,05eko ezpatarekin eta txirrika txiki batekin bota nuen. Dena txiki-txiki eginda gelditu zen".

30 tonako makala

Donostian lan asko egin zuen. Urgullen, Francoren jauregian, Maria Kristina hotolean, Ulian, Igeldon... makina bat zuhaitz botatakoea da. Egian, Maria Kristina parkean, makal bat bota behar izan zuen. "Tabakelarako aurrean okertuta zegoen makal bat zegoen eta kamioia ezin izaten zen pasa. Bota behar zela eta

deitu egin zidaten. 30 tonelada baino gehiago pisatzen omen zuen makal hark. Egurdiko hamabietan bota behar zela esan zidaten. Mendikotek bi orduan ez nuela botako esan zidan. Hasi ginen, baina inguruan pilatuta zegoen jendea ezin kendu. Ordu bietan botako gurela esan ziguten. Baina hamabietan baino jende gehiago elkartu zen. Makina eta teknika behar ziren makal hura botatzeko. 12 minutu eta erdian bota nuen. Ingenieroak argazkiak atera zitzaigun".

Behin, Arabara, Opakua aldera joan ziren, Munainera.

Itxitura egitera hiru lagun joan ziren. "Inork ez zigun ostaturik eman nahi. Hilabete baino gehiagoko lana zegoen. Kanpaiak jo genituen eta han bat etorri zen txapela kenduta, Akilino. Suhia, Rikardo, gurekin hasi zen lanean". Gosari oso ona eramaten zioten Akilinok kazuelan: baratzuri zopa, arrautzak, urdaiazpiko pusketak... Idiak ere bazeuzkan eta han eramaten zien gosaria. Munainen mutil bat hil zitzaien.

Motorrean edo bizikletan ibiltzen ziren batetik bestera.

Gabon pinua

Aintzindaria izan da Pako Murgiondo gauza askotan. Zegaman gabon pinua Joxe Azurmendi basozainak ekarri zuen eta berehala jarraitu zion Pakok negozio berriari. Duela 30 bat urte hasi zen mintegian izeia edo abetoa hazi eta inguruko soroak alokatuz izeiak aldatzen. Garai politak izan omen ziren. "Orain ez du askorik balio. Gastu handia dauka. Eskulanean lan asko dauka. 4-5 urte behar dute zerbait ematen hasteko. Norberak egin ezean ez du balio, lan asko behar da eta". Hazia Madrilgo injineru batek eman zion lehenengo. Gerora, Frantziatic ekartzen zuen.

Txerria bizikletan

Sorozarretan zebiltzan basoan. Txerria erosi zuen. Kamioilariak ez zion txerria Zegamara eraman nahi izan. Guardia Zibilak zeuden txerria erosi zuen lekuan "baina tonto-kontu batzuk esan eta aspertu zirenean alde egin zuten. Benetan alde egin zutela ikusita, txerria esku bakarrean hartu eta bizikletan abiatu nintzen. Otzaurteraino ixil-ixilik joan zen, elegante. Mikeleteak zeuden han. Txerria bizikletaren koadroan lotzen lagun zidaten. Goitik behera abiatu nintzenean txerria irrintzaka hasi zen eta kalera iritsi arte ez zen ixildu. Otzaurteko kurba batean Guardia Zibilak altoka aritu zitzaizkidan baina ni aurrera".

Txuleta jaten txapeldun

Logroñora joaten ziren txuleta lehiaketara. Nork txuleta gehiago jan izaten zen lehia eta 7 bat urtean parte hartu zuten zegamarrek. "Lehenengo urtean tranpa egin ziguten eta bigarren egin genuen. Bigarren urtean, irabazi egin genuen: 4 lagun artean 11 kilo txuleta jan genituen. Hiru bat aldez irabazi genuen txapelketa".



Atal honetan argitaratzeko argazki zaharrak behar ditugu. Harremanetan jartzeko dei 943 88 96 12 telefonora. Argazkiak itzuli egingo dizkizuegu.

1981eko ormaiztegiarrak

Ormaiztegiko San Andres ikastetxean ateratako argazkia da honakoa, sei urte zituztenean, hain zuzen ere.

Irakaslea: Ana Mendiguren. **Goian, ezkerretik eskubira:** Nagore Lizarralde, Leire Bolaños, Eneko Holgado, Ione Iturralde, Gorka Legorburu, Miren Murua, Mirian Kanpos, Alazne Izagirre eta Ana Zumarraga.

Aulkian eserita: Andoni Galarraga, Ainara R. de Gordoia, Josune Lasa, Aitor Arrondo, Amaia Galabide, Unai Barrenetxea, Anekari Garmendia, Olatz Elorza eta Mirari de Paz.

Lurrean eserita: Oihana Katarain, Jon Azpiaz, Jonathan Irizar, Arantxa Saenz eta Igor Baron.



ZEGAMA
OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi, Haritza, Osiña.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.

Segurako Erosle, **Idiazabalgo** Ahizpak eta **Ormaiztegi**ko Iñaki Erosle.



ARANDIA
Garaiea

LADA
Ssang Yong

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g

☎ 943 88 09 47

Iurre Auzoa

OLABERRIA



- ✓ Aholkularitza juridikoa
- ✓ Entrepresa zerbitzuak
- ✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel./Faxa: 943 16 21 92

Kale Nagusia, 2 **BEASAIN**



ITSASOKO OSTATUA

- ✓ Etxeko sukaldaritza.
- ✓ Eguneroko menua 800 pta.
- ✓ Udaberrian terraza zerbitzua

Aldez aurretik erreserba egiteko:

☎ 943 88 03 15

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



gizarte-ekintza
obra social

burujabetza bidean

abstentzioa





*"Garbi daukat Madrilen egon behar dela,
aurpegia eman behar dela"*

EA, zure hitzari eutsiz

Begoña Lasagabaster




*Han egonda bakarrik defenda
ditzakegu gure eskubideak tinko
eta koherentziaz.*

Begoña Errazti



*Ezin da aukerarik galdu Euskal
Herriaren etorkizuna erabakitzen
den erakunde guzti-guztietan esku
hartzeko.*

Nestor Basterretxea



*Bakeak eta euskal arazoaren
irtenbide politikoak gizartearen
esku egon behar duela aldarrika-
tzen badugu, kontsekuenteak izan
eta Madrilen egon beharra
daukagu.*



Euskal Sozialdemokrazia